

# 2030erako **Euskadiko Biodibertsitate- Estrategia**

eta 2020rako Ekintza Plana



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



# 2030erako **Euskadiko Biodibertsitate- Estrategia**

eta 2020rako Ekintza Plana



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*  
sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

- 
- ARGITARALDIA:** 1.a 2016ko urria
- ALE-KOPURUA:** 500 ale
- ©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
- INTERNET:** [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)
- ARGITARATZAILEA:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- ARGAZKIAK:** Mikel Arrazola (EJ/GV Irekia-Gobierno Vasco)
- DISEINUA:** Canaldirecto · [www.canal-directo.com](http://www.canal-directo.com)
- INPRIMATZEA:** Grafilur
- LG (Lege-gordailua):** BI XXXX-2016
-

# aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> .....	<b>6</b>
<b>1. Sarrera</b> .....	<b>8</b>
a) Munduko, europako eta estatuko ingurumen-testuingurua	
b) Euskal ingurumen-testuingurua	
c) Diagnostikoa	
d) Euskadiko biodibertsitatearen kudeaketari buruzko laburpena	
e) Biodibertsitateari buruz euskal gizarteak duen pertzepzioa	
f) Estrategia egiteko partaidetza-prozesua	
<b>2. Ikuspegi estrategiko bat</b> .....	<b>32</b>
<b>3. Biodibertsitatearen Estrategiaren 2030erako Xedeak eta Jarduketa-lerroak</b> .....	<b>34</b>
<b>4. 2020rako Ekintzak. Euskadiko natura-ondarea hobetzeko Ekintza-plana</b> .....	<b>40</b>
<b>5. Kudeaketa-eredua: gobernantza, analisi ekonomikoa eta jarraipena</b> .....	<b>48</b>
a) Gobernantza	
b) Baliabide ekonomikoak	
c) Jarraipena eta ebaluazioa	

# Aurkezpena



## Ana Oregi Bastarrika

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua  
Eusko Jaurlaritza

Biodibertsitatea kontserbatzea eta horren galera gelditzea; horra hor gizadiak aurrez aurre duen erronka nagusietako bat. Gurean, badakigu habitatak eta espezieak babestea dela planetaren etorkizuna ziurtatzeko uneko berme bakarra. Biodibertsitatea elikagai-, energia-, lehengai-, aire- eta ur-iturri da, eta, beraz, funtsezkoa. Gainera, gure kultura- legatuaren zati garrantzitsua da, eta ezagutza, osasun, aisia eta turismorako lagungarri.

Gaur egun, Euskadiko 55 espazio daude sartuta Natura 2000 babestutako naturaguneen sarean; 1.500 kilometro koadroko hedadura hartzen dute eta horrek esan nahi du gure lurraldearen % 23 legez babestuta dagoela. Esate baterako, Euskadiko biztanleen % 60k Natura 2000 Sareko espazioetatik datorren kalitatezko ura edaten dute, eta horren kostua

edateko ura arazte-sistema artifizial batetik lortzea baino nabarmen txikiagoa da.

Euskal gizartea konprometituta dago ingurumenarekin, eta bere gain hartu du natura-ingurunea kontserbatzeko eta lehengoratzeko erronka. Asko aurreratu dugu habitatak eta espezieak babesteko politiken arloan azken hamarkadetan, bai eta ekosistemak kontserbatzeko eta lehengoratzeko politiken arloan ere. Hala eta guztiz ere, badugu zer eginik oraindik. Euskadin, animalia ornodunen 700tik gora espezie bizi dira, ornogabeen 1.780 espezie eta 7.600 bat landare-espezie. Horien artean, 46 espezie ornodun mehatxatuta daude (21 galzorian), eta mehatxupear daude landare baskularren 125 espezie ere (54 galzoriko espezieak dira). Gainera, Euskadirako intereseko habitaten % 75 baino gehiago kontserbazio-egoera txarretan daude.

Natura-ingurunearen eskaera premiazoenei aurre egin ahal izateko, Euskadiko Biodibertsitate Estrategia 2030 du Eusko Jaurlaritzak. Estrategia osatzeko, herritarrek parte hartzeko prozesu handia egin da, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, Foru-aldundiekin eta eragile tekniko eta sozialekin lankidetzan. Lau jarduketa-ardatz proposatzen ditugu biodibertsitatea galtzea saihesteko: ekosistemak babestu eta lehengoratzea; Natura 2000 Sarea sustatzea; Naturaren ezagutza eta kultura bultzatzea; eta lurraldea eta Natura-Ondarea eraginkortasunez kudeatzea.

Inongo zalantzarik gabe, ingurumen-plangintzako tresna berri honi esker, Euskadin dugun natura-ingurunea baldintza onenetan utzi ahal izango diegu etorkizuneko belaunaldiei.

# 1. Sarrera





Badira urte batzuk Eusko Jaurlaritzak, gainerako administrazio publikoekin batera, esfortzu luze eta jarraitu bat egiten ari dela euskal natura-ondarea babesteko eta era aktiboan kudeatzeko. Nabarmentzekoa da azken urteetan Natura 2000 Sareko guneeetan egindako lana, edo mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen kontserbazioaren kudeaketa. Hala eta guztiz ere, ingurumen-sektorean aurrerapenak izan arren, ez dira gutxi narriatuta jarraitzen duten ekosistemak, eta bide luzea geratzen da Euskadiko itsaso- eta lur-inguruneek kontserbazio-egoera ona lortzeko eta horri eusteko. Funtsezko konpromiso hori lortzeko badira hobetu beharreko alor batzuk, besteak beste, erakundeen arteko koordinazioa, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak esleitzea, edo jakintza teknikoaren etengabeko eguneraketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia natura-ondarearen arloko lehentasunak eta konpromisoak finkatzeko tresna da, begirada 2030. urtean jarrita. Eskualde-aplikazioko ekimen bat den arren, ikuspegi globala ere badu eta Dibertsitate biologikorako 2011-2020 Estrategia-planarekin bat egiten du. Hala, aipatutako plana Dibertsitate Biologikoari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenetik, 2020ra bitarteko Biodibertsitateari buruzko Europar

Batasunaren Estrategiatik eta 2011-2017 aldirako Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikotik sortu da. Dokumentu horiek guztiek dibertsitate biologikoak nazioartean pairatzen dituen presioei zein mehatxuei aurre egiteko hainbat helburu eta jarduketa ezartzen dituzte. Ildo horretan, bat egiten du, halaber, 2015ean Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendako Garapen Jasangarriari buruzko Helburuekin (2015an onartuak), eta 15. Helburuak hau adierazten du: «Lur-ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea, desertifikazioaren aurka egitea, lurren degradazioa gelditzea eta dibertsitate biologikoaren galera gelditzea»<sup>1</sup>.

Gainera, Estrategia horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programako 1. Helburu Estrategikoan ezarritakoa betetzea: «Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz.»

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak helburu bat ezarri du: biodibertsitatearen inguruko lan-marko orokorra ezartzea, Foru Aldundien eta inplikaturako gainerako erakundeen eta agenteen arteko kolaborazio-ekimen ugariak indartzeko, eta eginkizun horren ardurak Ingurune Naturaleko eta Ingurumeneko Plangintzaren zuzendaritzak izango du.

<sup>1</sup> <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/biodiversity/>

## a) Munduko, europako eta estatuko ingurumen-testuingurua

Biodibertsitateri lotutako mugari nagusiak, bai nazioartekoak bai europakoak, taula honetan jaso dira:

Nazioarteko eta Europako mugari nagusiak	Azalpena
<b>Nazio Batuen Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena<sup>2</sup></b>	<p>Nazioarteko oinarritzko erreferentzia-dokumentua da biodibertsitatearen alorrean. Horixe izan zen lortu zen funtsezko akordioetako bat, 1992an Rio de Janeiroan egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (Lurraren Gailurra).</p> <p>6. artikulua. Kontserbaziorako eta garapen jasangarrirako neurri orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Alde kontratugile bakoitzak estrategia, plan edo programa nazionalak egingo ditu aniztasun biologikoa kontserbatzeko eta horren erabilera jasangarria egiteko (...).</li> <li>b) Kontratugile bakoitzak, ahal den heinean eta egokia bada, aniztasun biologikoaren babesa eta erabilera jasangarria sektorekako edo sektoreen arteko planetan, programetan eta politiketan integratuko du.</li> </ul>
<b>Dibertsitate biologikorako 2011-2020 Estrategia-plana – Aichiko xedeak<sup>3</sup></b>	<p>Nazio- eta eskualde-helburuak ezartzeko esparrua da, eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmeneko helburuak modu koherentean eta eraginkorrean aplikatzea sustatzen du. Ikuspegi batek, Misio batek, Helburu estrategikoen eta Aichiko Xedeak izeneko 20 helburuk osatzen dute.</p> <p>Dibertsitate Biologikorako Aichiko 17. Xedeak hau adierazten du: «2015. urterako alde bakoitzak, dibertsitate biologikoaren eremuan, Estrategia eta Ekintza-plan nazional eraginkorrak, parte hartzeak eta eguneratuak politika-tresna gisa hartuko ditu eta martxan jarriko ditu».</p>
<b>Garapen Jasangarrirako 2030rako Agendako Garapen Jasangarriari buruzko helburuak<sup>4</sup></b>	<p>Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendan (2015eko irailean munduko agintariak onartua) Garapen Jasangarriari buruzko Helburuak (GJH) jaso dira, zehazki 17, eta horiek guztiak indarrean jarri ziren 2016ko urtarrilaren 1ean. GJH horietatik biodibertsitatearekin zerikusi handiena hauek dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— <b>13. Helburua:</b> Klima-aldaketari eta bere eraginei aurre egiteko neurri urgenteak hartzea.</li> <li>— <b>14. Helburua:</b> Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, betiere garapen jasangarria helburu.</li> <li>— <b>15. Helburua:</b> Lurreko ekosistemen erabilera sustatzea, desertifikazioari aurre egitea, lurzoruen degradazioa gelditu eta lurzoruen egoera leheneratzea, eta aniztasun biologikoaren galera gelditzea.</li> </ul>

<sup>2</sup> <https://www.cbd.int/doc/legal/cbd-es.pdf>

<sup>3</sup> <https://www.cbd.int/doc/strategic-plan/2011-2020/Aichi-Targets-ES.pdf>

<sup>4</sup> <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/la-agenda-de-desarrollo-sostenible>

(... /...)

## Nazioarteko eta Europako mugarri nagusiak

## Azalpena

### 2020rako Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko Estrategia<sup>5</sup>

Estatu kideetako eta bertako eskualdeetako natura kontserbatzeko eta leheneratzeko politikak orientatu behar ditu.

**EBren ikuspegia 2050rako:** «2050ean, Europar Batasunaren biodibertsitatea eta eskaintzen dituen zerbitzu ekosistemikoak (bere kapital naturala) behar bezala babestuta, balioetsita eta berreskuratuta egongo dira, biodibertsitateak berezko balioa duelako eta gizakiaren ongizateari zein oparotasun ekonomikoari funtsezko ekarpena egiten diolako; hala, biodibertsitatearen galerak ekar ditzakeen aldaketa katastrofikoak saihestuko baitira.»

**EBren helburu nagusia 2020rako:** «2020rako EBren biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa gelditzea, eta horiek ahal den heinean leheneratzea; hala, EBk, aldi berean, munduko biodibertsitatea galtzearen aurka egiten duen ekarpena areagotuko du.»

\* Ikusi, halaber, 2020ra bitarteko Biodibertsitateari buruzko EBren Estrategiaren Bitarteko Berrikuspena<sup>6</sup>.

### Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basasflora kontserbatzearen ingurukoa<sup>7</sup>

Basaespezieak eta haien habitatak babestea da helburua. Basaespezieak babesteko sare ekologiko bat eta araubide juridiko bat ezartzen ditu.

Batasunaren intereseko habitatak identifikatzen ditu, baita Batasunaren intereseko animalia- eta landare-espezieak ere. Horiek guztiak babesteko betebeharra ezartzen du, eta, berebat, horiek guztiak mantentzeko, leheneratzeko eta kontserbazio-egoera on bat sustatzeko neurriak hartzera behartzen du.

### Basahegaztiak kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren 1979ko apirilaren 2ko 79/409/EEE Zuzentaraua<sup>8</sup> (2009/147/EE Zuzentaruau<sup>9</sup> eguneratua)

Zuzentaru honen helburua da EBko basahegazti guztiak kontserbatzea, horiek babesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko arauak ezarrita. Hegaztiak, haien arrautzak, habiak eta habitatak sartzen dira.

Espezie mehatxatuen populazioak kontserbatzeko edo leheneratzeko neurriak hartzea proposatzen du, eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturalen arabera, kontuan izanik behar ekonomikoak eta jolaserako beharrak. Hegazti-espezie guztientzat behar beste dibertsitate eta azalera kontserbatzeko eta leheneratzeko, neurriak ezarri behar dira.

(... /...)

<sup>5</sup> [http://ec.europa.eu/environment/nature/biodiversity/strategy/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/nature/biodiversity/strategy/index_en.htm)

<sup>6</sup> <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52015DC0478&from=ES>

<sup>7</sup> EBAO, 206. zk., 1992ko uztailaren 22koa.

<sup>8</sup> EBAO, 103. zk., 1979ko apirilaren 25ekoa.

<sup>9</sup> <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32009L0147>

(... / ...)

## Nazioarteko eta Europako mugarr nagusiak

## Azalpena

### Natura 2000 Sarea<sup>10</sup>

Habitategi eta hegaztiei buruzko zuzentarauetatik eratorri da, eta sare ekologiko koherente bat sortzean datza. Honako hauek hartzen ditu barnean:

- GKL: Garrantzi Komunitarioko Lekuak.
- KBE: Kontserbazio Bereziko Eremuak.
- HBBE: Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak.

### 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura-ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa<sup>11</sup>

Estatuko natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko oinarrizko araubide juridikoa ezartzen du, betiere pertsonen ongizaterako, osasunerako eta garapenerako ingurumen egokia bermatzeko eskubideen eta kontserbatzeko betebeharraren barruan.

### 1274/2011 Errege Dekretua, irailaren 16koa, 2011-2017 aldirako natura-ondarearen eta biodibertsitatearen Plan Estrategikoa onartzen duena 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoa aplikatuz<sup>12</sup>

42/2007 Legetik, abenduaren 13kotik, Natura-ondarearen eta Biodibertsitatearen Legetik eratorritakoa da, eta bere helburua hau da: xedeak, ekintzak eta irizpideak ezartzea eta zehaztea, susta ditzaten ondare naturalen, lurreko zein itsasoko baliabide naturalen, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbazioa, erabilera jasangarria eta leheneratzea.

<sup>10</sup> <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-natura/es>

<sup>11</sup> BOE, 299. zk., 2007ko abenduaren 14koa.

<sup>12</sup> BOE, 236. zk., 2011ko irailaren 30ekoa.

## b) Euskal ingurumen-testuingurua

Euskal administrazioek 20 urte baino gehiago daramatzate habitatak eta espezieak babestu daitezela sustatzen, eta, horren ondorioz, Euskadik azken urteetan oso aurrerapen handia egin du biodibertsitateari buruzko politiken alorrean. Ildo horretatik, lurralde honetako natura-ondarearen alorreko politikaren oinarriak dira 2014ko Natura Kontserbatzeko Legea eta EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa (IEP), urte horretan bertan onartua.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitatearen Estrategia honen jarduketa-lerro nagusiak zehazteko, EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programako 1. Helburu Estrategikoan

ezarritakoa hartu da aintzat. Eta hau adierazten du jarduketa-lerro horrek:

- Ingurune naturalaren kontserbazioa modu eraginkorrean txertatzea politika sektorialetan.
- Ekosistemen eta beren zerbitzuen galera mugatzea.
- Lurzoruaren okupazioa geldiaraztea; horretarako, erabileren nahasketa sustatuko da eta espazio degradatuak leheneratu nahiz berrerabiliko dira.
- Euskadiko kapital naturalaren kudeaketan tresna ekonomikoak jasotzea.
- Lurraldean jarduten duten agenteak ekosistemen zerbitzuen garrantziaz sentsibilizatzea eta konprometitzea.

**IV. IEPk Helburu Estrategiko gisa planteatzen du 2020. urterako lortu behar dela Euskadiko ekosistemen degradazioa gelditzea. Eta, halaber, habitat nagusien, itsasokoen eta lehorrekoen, egoera hobetzea eta erasan nagusiak, eremuen isolamendua eta espezie inbaditzaileak, kasu, modu integral eta sistemikoan kudeatzea, administrazio eskudun guztien arteko lankidetzan estuan.**

Gainera, Euskadik hainbat natura-inguruneetarako lege eta tresna ugari ditu; hala, tresna nagusietako batzuk hauek dira:

### Esparrua

### Euskadiko biodibertsitatearekin zerikusia duten tresna normatibo eta estrategiko nagusiak

#### Natura-ondarea eta Biodibertsitatea

- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena<sup>13</sup>.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena<sup>14</sup>.
- Bizkaiko biodibertsitatea babesteko, hobetzeko eta kudeatzeko estrategia (2015)<sup>16</sup>.

(... / ...)

<sup>13</sup> <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/informazioa/2020ko-ingurumen-esparru-plana/r49-5832/eu/>

<sup>14</sup> EHAA, 130. zk., 2014ko maiatzaren 29koa.

<sup>15</sup> EHAA, 59. zk., 1998ko martxoaren 27koa.

<sup>16</sup> [http://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Eus\\_Estrategia%20Biodiversidad%20%28Para%20publicar%29.pdf?idioma=EU](http://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Eus_Estrategia%20Biodiversidad%20%28Para%20publicar%29.pdf?idioma=EU)

(... /...)

## Esparrua

## Euskadiko biodibertsitatearekin zerikusia duten tresna normatibo eta estrategiko nagusiak

### Arriskuan dauden espezieak

- 167/1996 Dekretua, Basoko eta Itsasoko Faunako eta Florako Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoa arautzen duena (EMEK) eta dekretuaren ondorengo aldaketak.
- Arriskuan dauden espezieen kudeaketa planak<sup>17</sup>.

### Naturagune babestuak

- Naturagune babestuak (KBE eta BBE) deklaratzeko dekretuak, hegaztiei eta habitatei buruzko zuzentarauak aplikatuz<sup>18</sup>.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Parke Naturalak, Biotopo babestuak eta Zuhaitz bereziak deklaratzeko dekretuak<sup>19</sup>.
- Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak (BNAP).
- Otsailaren 27ko 42/1996 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Babestutako Naturagune Sarearen Erregistroaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa<sup>20</sup>.

### Lurralde-kudeaketa

- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa<sup>21</sup>.
- 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena<sup>22</sup>, gaur egun berrikusketa-fasean dago.
- Lurralde Plangintza Sektoriala (LPS)<sup>23</sup>: Ibai eta Erreka Ertzeen Antolamenduaren LPS; Hezeguneen LPS; Itsasertzeko Babes eta Antolamendu LPS; Nekazaritzako eta Basoko LPS; eta abar.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa<sup>24</sup>.

(... /...)

<sup>17</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/contenidos/plan\\_programa\\_proyecto/gestion\\_especies/eu\\_doc/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/contenidos/plan_programa_proyecto/gestion_especies/eu_doc/indice.html)

<sup>18</sup> <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-natura/eu>

<sup>19</sup> <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=4&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300>

<sup>20</sup> EHAA, 51. zk., 1996ko martxoaren 12koa.

<sup>21</sup> EHAA, 131. zk., 1990eko uztailaren 3koa.

<sup>22</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49565/es/contenidos/informacion/dots/es\\_1165/indice\\_c.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49565/es/contenidos/informacion/dots/es_1165/indice_c.html)

<sup>23</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-565/eu/contenidos/informacion/pts/eu\\_1161/pts\\_e.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-565/eu/contenidos/informacion/pts/eu_1161/pts_e.html)

<sup>24</sup> <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2006/07/0603776a.pdf>

(... / ...)

## Esparrua

## Euskadiko biodibertsitatearekin zerikusia duten tresna normatibo eta estrategiko nagusiak

### Lehen sektorea

- 10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa Ingurunearen Garapeneko<sup>25</sup>.
- Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020<sup>26</sup>.
- 2020rako Euskadiko Arrantza eta Akuikulturako Plan Estrategikoa<sup>27</sup>.
- Euskadiko Baso Plangintza 1994-2030<sup>28</sup>.
- Mendiei buruzko foru-arauak<sup>29</sup>.

### Urak<sup>30</sup>

- Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021.
- Kantauri Mendebaldeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021.
- Ebroren Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa 2015-2021.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

### Geodibertsitatea

- 2020rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Geodibertsitatearen Estrategia<sup>31</sup>, «EAEko Interes Geologikoko Lekuen inbentarioa (IGL)» barnean hartzen duena.
- Agindua, 2011ko martxoaren 18koa, zeinen bidez argitara ematen baita Euskal Kostaldeko Geoparkearen nazioarteko izendapena eta Europako Geoparkeen Sarean zein UNESCOk lagunduriko Munduko Geoparke Nazionalen Sarean sartu izana<sup>32</sup>.

### Klima-aldaketa

- 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia. Klima 2050<sup>33</sup>.

### Ingurumen-hezkuntza

- Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn 2005-2014<sup>34</sup> (2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza-Estrategia lanetan dago).
- Urdaibaiko Biosfera Erreserban interpretaziorako, Ikerketarako, Gaikuntzarako eta Garapen jasangarrian Hezteko Plana<sup>35</sup>.

### Garapen jasangarria

- EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002-2020)<sup>36</sup>.

<sup>25</sup> <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1998/05/9801778a.pdf>

<sup>26</sup> [http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50-pdr2020/eu/contenidos/informacion/pdr2020\\_intro/eu\\_agripes/pdr2020\\_intro.html](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/r50-pdr2020/eu/contenidos/informacion/pdr2020_intro/eu_agripes/pdr2020_intro.html)

<sup>27</sup> [http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/plan\\_programa\\_proyecto/plan-estrategico-de-pesca-y-acuicultura-de-la-comunidad-autonoma-del-pais-vasco-2020/r50-3812/es/](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus/plan_programa_proyecto/plan-estrategico-de-pesca-y-acuicultura-de-la-comunidad-autonoma-del-pais-vasco-2020/r50-3812/es/)

<sup>28</sup> [http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/agricultura\\_pesca\\_08/es\\_ag\\_pes/adjuntos/plan\\_forestal\\_vasco.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/agricultura_pesca_08/es_ag_pes/adjuntos/plan_forestal_vasco.pdf)

<sup>29</sup> [http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1193045560308&language=eu\\_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPPage%2FDPA\\_contenidoFinal](http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1193045560308&language=eu_ES&pagename=DiputacionAlava%2FPPage%2FDPA_contenidoFinal)  
[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=436&idioma=EU&dpto\\_biz=2&codpath\\_biz=21436](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=436&idioma=EU&dpto_biz=2&codpath_biz=21436)  
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2007/02/0701158g.pdf>

<sup>30</sup> <http://www.uragentzia.euskadi.eus/plangintza-hidrologikoa-euskal-autonomia-erkidegoan/u81-000331/eu/>

<sup>31</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/proyecto/geodibertsitatearen\\_estrategia/eu\\_def/adjuntos/geodivers\\_2020\\_EU.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/proyecto/geodibertsitatearen_estrategia/eu_def/adjuntos/geodivers_2020_EU.pdf)

<sup>32</sup> EHAA, 67. zk., 2011ko apirilaren 6koa.

<sup>33</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/klima\\_2050/eu\\_def/adjuntos/KLIMA%202050\\_eu.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/klima_2050/eu_def/adjuntos/KLIMA%202050_eu.pdf)

<sup>34</sup> [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_edu\\_ambi/adjuntos/800005e\\_compromiso\\_educacion\\_sostenibilidad\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_edu_ambi/adjuntos/800005e_compromiso_educacion_sostenibilidad_e.pdf)

<sup>35</sup> [http://www.euskadi.eus/web01-s2ing/eu/contenidos/plan\\_programa\\_proyecto/pice\\_urdaibai/eu\\_15315/indice.html](http://www.euskadi.eus/web01-s2ing/eu/contenidos/plan_programa_proyecto/pice_urdaibai/eu_15315/indice.html)

<sup>36</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/plan\\_programa\\_proyecto/eavds\\_pma/eu\\_9688/adjuntos/pma0206.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/plan_programa_proyecto/eavds_pma/eu_9688/adjuntos/pma0206.pdf)

## c) Diagnostikoa

Jarraian, Natura-ondarearen Diagnostikoaren laburpena aurkeztuko dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia eratzeko egin dena. Diagnostiko hori egiteko, hainbat diziplinarekin erlazioatutako dokumentuak aztertu dira, eta hemen informazioa ahalik eta laburtuen azaldu nahi izan da (eranskinen atalean dokumentu osoa dago).

2016ko otsailaren 10ean Biodibertsitateari buruzko Gizarte-foroa egin zen. Bertan, 9 Ideia Nagusi aurkeztu ziren, eta laburpen hau ideia horiek oinarri hartzen dituzten bederatzi puntutan egituratu da. Puntu horiek Diagnostikoaren alderdirik garrantzitsuenak jasotzen dituzte. Hauek dira:

### 1. EAerako interesekoak diren habitaten % 75 kontserbazio-egoera txarrean daude, horien atzerakada, zatiketa edo degradazioa dela eta


EAerako interesekoak diren habitatak lortzeko, Batasunaren interesekoak diren habitatat eta Natura 2000 eremuetako helburuen eta neurrien dokumentuetan jasotako elementu nagusietan oinarritu dira.

egoeraren antzekoa da (% 77 egoera txarrean dago), Europar Batasuneko 2020erako<sup>37</sup> Biodibertsitate Estrategiari egindako bitarteko berrikuspenak 2010etik kontserbazio-egoera ona duten habitat-kopuruak gora egin duela adierazten duen arren.

Europar Batasunaren interesekoak diren habitaten kontserbazio-egoera EAerako Interesekoak direnen

Europar Batasunaren interesekoak diren habitaten kontserbazio-egoerarik txarrean duten habitatak larreak eta hezeguneak dira.

#### EAerako Habitat Interesgarrien kontserbazio-egoera \*



\* Zaintzaren emaitza nagusiei buruzko txostena, I. eranskineko habitat motetarako 17. Artikuluarekin bat (D eranskina).

<sup>37</sup> <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/albiste/2015/biodibertsitatearen-europako-2020erako-estrategiaren-tarteko-berrikuspena/>



Euskadin, bestalde, hezeguneak eta zohikaztegiak egoera txarrean daude, hala ere, kostaldekoak eta basoak daude egoerarik txarrean. EAEn erlatiboki ondo dauden azken horiek guztiek alderdi nabarmen bat dute, eta hauxe da: kontserbazio-egoera txarra dutela diagnostikatzeko arazoak direla zatikatzea, konplexutasun estruktural eta funtzional

eskasa izatea, eta horietako batzuek azalera eskasa izatea, izan zezaketenarekin alderatuta. Aurreko hamarkadetan asko aprobeztatu izana da horren zergatia. Badira urte batzuk beren egoera nabarmenki eta progresiboki hobetzen hasi zirela. Eremu horiek dituzten mehatxu eta erronken artean klima-aldaketaren ondorioak nabarmentzen dira.

## 2. Espezieen kontserbazio-egoerari buruz ez dago informazio nahikorik

Oro har, EAEn ez dago espezieen kontserbazio-egoerari eta joerari buruzko informazio askorik. Izan ere, habitaten kontserbazio-egoera ez bezala, ez da egoera hori balioztatu. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak EAEn esleitu zizkion espezieak bakarrik balioetsi dira (bisoi europarra, Pirinioetako muturluzea eta igaraba). Informazio eskasia hori bereziki nabarmengarria da onddoei, likenei, baskularra ez den florari eta ornogabeei dagokienez.

Hala eta guztiz ere, esan daiteke, Europar Batasuneko 2020erako Biodibertsitate Estrategiari egindako bitarteko berrikuspenaren arabera, 2010etik kontserbazio-egoera ona duten espezie-kopuruak gora egin duela. Dena den, egoera txarrean dauden espezie asko egoera txar horretan daude oraindik, eta batzuk, are egoera txarragoan daude orain.


## 3. Mehatxatutako Espezieen Euskadiko Katalogoan, 202 espezie jasota daude arrisku gehieneko bi kategorietan (87 «galzorian» eta 115 «kaltebera»). Espezie inbentariatu guztien % 2 dira

Euskadiko Katalogoaren arabera, EAEn inbentariatu diren espezieen % 4 arriskuan (mehatxupean) daude: 87 «galzorian» daude, 115 «kaltebera» atalean sailkatuta daude, 88k «bakana» izendapena dute eta 93 «interes berezikoak» dira. Halaber, EAEn interesekoak diren espezieak kudeatzeko 21 plan daude. Horietako 19 Mehatxatutako Espezieen Euskadiko Katalogoan jasotako taxonei zuzenduta daude. Nahiz eta katalogo honetan jasota ez egon, aingirarentzako Kudeaketa-plan bat dago Bizkaian eta Gipuzkoan, eta beste plan bat otsoarentzat Araban.

Bestetik, Mehatxatutako Espezieen Euskadiko Katalogoan oraindik jaso gabe dauden espezie batzuk bertan jasotzeko proposamenak daude. Dena den, ez dira kontuan hartu onddo eta likenak ez Katalogo honetan ezta Zerrenda Gorrietan ere, eta beraz, ezezaguna da duten mehatxu-maila.

Kudeaketa-plan ez gain, beste kontserbazio-ahalegin batzuk egiten ari dira, honako hauen bidez: LIFE-programak, germoplasmaren biltegiak, fauna berreskuratzeko zentroak, gatibu-egoeran hezteko programak, birpopulatzeko, hegazti sarraskijaleen janlekuak, etab.

## EMEKaren espezieen %-a, kategoriaka eta taldeka




#### 4. EA Eren azaleraren % 23 dago babesgune bezala deklaraturata. Natura 2000 Sareak lurraldearen % 20,5 barne hartzen du

Natura 2000 Sarea funtsezko apustua da Europako biodibertsitate-politikari dagokionez. Sare hori Europako lur- eta ibai-habitatentzat osatu da neurri handi batean, eta lur-azaleraren % 18 barne hartzen du, gutxi gorabehera. Euskadin 96 lekuk osatzen dute eremu babestuen multzoa: Natura 2000 Sarea, Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz Bereziak eta Mundakako itsasadarraren eta Ogoño lurmuturraren itsasgunea-HBBE (horren kudeaketa estatuaren eskumena da). Aintzat hartuta lurtarrak diren eremuetako batzuek babestu beharreko figura bat baino gehiago dutela, EA Eren azaleraren % 24 babestua dago, horretatik 177.073 ha Natura 2000 Sareari dagokio. Eremu horiek nahitaez bete behar diren zenbait araudiri eta neurri atxikita daude.


Azken hamarkadetan eremu babestuen deklarazioak areagotu egin dira, horren inguruko araudia, Europa-mailakoa nagusiki, onetsiz joan ahala. Pentsatzekoa da deklarazio horiek goia jotzear daudela, nahiz eta etorkizunean heda daitezkeen.

Edonola ere, Europako Biodibertsitate Estrategiari egindako bitarteko berrikuspenaren arabera, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera globala Natura 2000 Sareak ematen dien estaldura-mailari edo ordezkapenari lotuta dago. Hala ere, egoera txarrean dauden habitaten eta espezieen kasuan, beren kontserbazio-egoeraren joera hertsiki lotua dago Natura 2000 Sareak ematen dien estaldura-mailari. Izan ere, sareak gero eta estaldura gehiago eman, orduan eta hobeto balioztatzen da bere joera. Estaldura gehien duten kasuetan «egonkor» gisa balioztatzen da, eta estaldura txikiagoa dutenean, «txarrera doa» gisa.

### EAEko Babestutako Naturaguneen



### Gune babestu aitortutako azaleraren bilakaera




Mugarriak: Urdaibaiko Biosfera Erreserba babestu eta antolatzeari buruzko Legea (1989). Habitaten Zuzentaraua (1992 eta ondorengo eguneraketak). Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legea (1994 eta ondorengo eguneraketak).

## 5. Geodibertsitateak lekua hartu du natura-ondarearen kudeaketan

Euskal Autonomia Erkidegoko 2020erako Geodibertsitate Estrategiak honako hau adierazten du: «Geodibertsitatea ondasun komuna da eta argi dago lurralde baten aberastasun naturalaren parte dela. Izan ere, biodibertsitatearen funtsa da, eta elementu biotikoen garapena baldintzatzen du, orain arte administrazio publikoek egindako kudeaketaren eta kontserbazioaren helburu nagusia izan direnak».

Natura-ondarearen funtsezko alderditzat jotzen duenez, alor horretan, babesaren eta kudeaketaren eredu berritzailea da Euskadi. Ildo horri jarraituz, 2014ko ekainean onartu zen 2020rako EAEko Geodibertsitatearen Estrategia, eta Interes Geologikoko Lekuen inbentario bat egin da, gure lurraldeko geodibertsitateak duen garrantziaren berri emateko.

### Interes Geologiko Lekuak (IGL) eta Euskal Kostako Geoparkea



- Euskal Kostako Geoparkea
- Interes Geologiko Lekuak (IGL)

150 leku / EAEko azaleraren % 5

Zenbait salbuespen dauden arren, orokorrean, ez dira EAEko eremu naturalen barruan babestu beharreko elementu baliagarritzat jo. Bestetik, Euskal Kostako Geoparkeak errekonozimendu handia jaso du, UNESCOk


2015eko azaroan Geoparkeen Munduko Sarean sartu zuenetik, Munduko Geoparkeen Programaren baitan<sup>38</sup>; horrek esan nahi du Biosfera-Erreserben edo Munduko Ondarearen parekotzat jotzen dela.

## 6. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez, lurralde-eredu berri bat lantzen ari dira, azpiegitura berdea zerbitzu ekosistemikoen aukera handia ematen duen elementu eta kontzeptu gisa txertatuta duena

Europar Batasuneko biodibertsitate-politikak ere ekosistema-zerbitzuetan oinarritutako ikuspegia sustatzen du. Horren harira, Europar Batasuneko Biodibertsitate Estrategiaren helburuen artean azpiegitura berde bat sortzea dago, ekosistemak mantentzeko eta hobetzeko, eta lurraldearen eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuen arteko konektibitatea sustatzeko. Nahiz eta horren inguruan aurrerapen handiak izan diren, estatu kideek nazio- eta lurralde-esparruak garatu eta ezarri beharko dituzte, leheneratzea eta azpiegitura berdea sustatzeko.

EAEk bere lurraldean azpiegitura berde bat sortu nahi du, ekosistemak mantentzeko eta hobetzeko, lurraldearen eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuen arteko konektibitatea sustatuta. Horregatik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez, kontzeptu hau ari dira txertatzen lurralde-eredu berrian. Lurralde Antolamenduak uste du ekosistema-zerbitzuen ikuspegia erabakiak hartzean orain arte aintzat hartu ez diren (edo horien

### EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen berrikuspenean jasotako azpiegitura berdearen proposamena



zati bat bakarrik aintzat hartu den) alderdi batzuk (euskarrikoak, hornikuntzakoak, erregulaziokoak, kulturalak) aintzat hartzeko aukera dela.

<sup>38</sup> <http://www.unesco.org/new/es/office-in-montevideo/ciencias-naturales/earth-sciences/geoparques/>

## 7. Lehenengo sektorea oso garrantzitsua da EAEko natura-ingurunea eta paisaia tradizionala zaintzeko, landa-komunitateei eusten dielako eta espezieen eta barietateen genetika-aberastasuna gordetzen duelako


EAEko azaleraren zati handi bat (% 81) nekazaritza eta basozaintzako sektorearekin dago lotuta; beraz, sektore horrek natura-ondarearen kudeaketan duen eragina azpimarragarria da. Mantendu eta kontserbatu ahal izateko, euskal lurraldeko habitat eta espezie asko nekazaritza eta basozaintzako jardueraren mende daude. Natura 2000 Sarean ordezkartza gehien duen eremu mota mendikoa da. Eremu horretako erabilera nagusiak basozaintzakoak eta nekazaritza eta abeltzaintzakoak dira; bereziki, larre- eta sastraka-inguruetan, ganaduak hazkuntza estentsiboan aprobetxatzen dituenetan. Gainera, animalia eta landare mota asko dago nekazaritzari eta abeltzaintzari lotua. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduera tradizionalak onuragarriak izan dira, mendeetan zehar, Euskadiko biodibertsitatearentzat, batik bat mendialdeko nekazaritza-eremuetan. Hori dela eta, landa-

eremuko biodibertsitatearen kontserbazioa lantzeko, aintzat hartu behar dira alderdi sozioekonomikoak eta ekosistema horien oinarrian dauden balioak eta prozesuak bultzatzera zuzendutako politikak.

Era berean, ekoizpen ekologikorako eta ekoizpen integraturako azalera hazkunde esanguratsua egon da. Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriei lotutako azalera gorantz egin du pixka bat. Baso-azalera asko handitu da, eta eskualdeko basogintza iraunkorreko ziurtapen-sistema garatu duen lehenengo autonomia-erkidegoa da.

EAEk parte-hartze aktiboa du planak eta arauak sustatzen; helburua da sektoreak ingurumena gehiago errespetatzea eta garapen iraunkorra ziurtatzea, baita jasotako natura-ondarea babestea eta indartzea ere.

**Baso-kudeaketa jasangarria atxikitako azalaren bilakaera\***



Gaur egun, EAEko baso-azaleraren % 16 hartzen du

**Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriei atxikitako azalaren bilakaera\***



Gaur Egun, EAEko nekazaritza-azalaren % 30 hartzen du

\* Basoak Ziurtatzeko Sistemak Errekonozitzeko Programara atxikitako azalera. Basalde, 2015.


\* Euskadiko 2007-2014 Landa Garapenerako Programaren jarraipenaren arabera.

## 8. Euskadik paisaia-aberastasun eta -dibertsitate handia du, eta, ondorioz, naturari lotutako baliabide turistiko ugari eskain ditzake

Berezko ingurumen-zerbitzuez gain (adibidez, klima-araudia, uholdeak indargetzea, etab.), Euskadiko natura-ondarea hainbat jarduera ekonomikoren eta dibertimendurako jardueraren euskarria da, hala nola, turismoarena (eremu babestuetara eta interes geoturistikoko lekuetara bititak, hegaztiak eta zetazeoak ikustea, eta abar). Sektore honetan urteak eman dituzte turismo jasagarria sendotzeko lanean.

Aisialdiko eta turismoko ikuspuntutik, EAEko paisaiak, bereziki landa-eremuetakoak eta eremu babestuetakoak, zenbait irabazi sozioekonomiko ematen ditu. Gizarteari irabazi horien berri emateak biztanleetatik gertuago egoteko eta kontserbazioari zuzendutako ahaleginei babes emateko aukera dakar. Jarduketa turistiko jasagarriek laguntza zuzena edo zeharkakoa ematen diote dibertsitate biologiko eta geologikoa kontserbatzeari, bere iraupen eta lehiakortasun propioaren alde<sup>39</sup>.

### Natura-ondareekin lotutako baliabide turistikoak



<sup>37</sup> [http://www.basquetour.net/archivos/descargas/Euskal\\_Turismoaren\\_Plan\\_Estrategikoa\\_2020\\_2015\\_04\\_21\\_08\\_26\\_06.pdf](http://www.basquetour.net/archivos/descargas/Euskal_Turismoaren_Plan_Estrategikoa_2020_2015_04_21_08_26_06.pdf)



## 9. Europako eta EAeko natura-ondarea eta bere ekosistema-zerbitzuen galera edota nariadura sortzen duten presio nagusiak honako hauek dira: luraren artifizializazioa/urbanizazioa, nekazaritza eta basozaintzako jarduera desegoki batzuk eta arrantza, baldintza naturalak aldatzea, kutsadura, klima-aldaketa eta Espezie exotiko inbaditzaileak

Euskadiko azaleraren zatirik handiena lurzoru urbanizaezinak, eremu libreak eta ibai-ibilguak dira. EAEn kalifikatutako azaleraren % 6,76 bakarrik osatzen dute azpiegiturek eta eremu urbanizatuak. Hala eta guztiz ere, asentatze edo eraikitze horrek lurraldeak zatiketa handia jasatea ekarri du. Halere, lurralde-antolamenduaren alorrean, pauso garrantzitsuak ari dira ematen, azpiegitura berdea era egokian planifikatu eta diseinatzen baita, lurzoruaren artifizializaziotik eta zatikatzeak eratorritako inpaktuak zein ondorioak arintzen laguntzeko.

Nekazaritzari dagokionez, honako hauek dira presio eta mehatxu ohikoenak: artzaintza-sistemak aldatzea eta nahiko artzaintza ez egitea, nekazaritza eta basogintzaren areagotzea, ongarriketako eta pestiziden erabilerako gehiegikeria batzuk.

Baldintza naturalak gizakien jarduerengatik aldatu dira nagusiki. Izan ere, gizakiek ur-masen baldintzak aldatu dituzte, eta habitaten arteko komunikazioa murriztu dute, besteak beste.

Kutsadura bigarren mailara pasa da presioen artean, bere alor guztietan hobekuntza izan baitu:

- Airearen kalitatea hobetzen ari da, eta airearen kutsatzaileen isurtzea behera ari da.
- Ur-masen egoera ekologikoaren bilakaera positiboa da; halere, egoera ekologikoa okerragoa da egoera fisiko eta kimikoa baino (2014an, masen % 52k egoera ona zuen).
- Ikertutako eta leheneratutako lurzoru kutsatuaren kopurua eta azalera etengabe ari da igotzen.

Euskadiko Klima-Aldaketaren Estrategiak arintze- eta egokitze-lehentasunak 2050erako finkatu ditu. Energiako, garraioko eta industriako sektoreak dira kutsatzaileen isurle nagusiak. Nekazaritzak, bestalde, bi zeregin betetzen ditu klima-aldaketari dagokionez: isurtze-iturria (urteko berotegi-efektuko gas-isurtzeen % 4, jaisten ari da) eta karbono-hustulekuak sortzen dituen jarduera.

Espezie exotiko inbaditzaileei dagokienez, Euskadiko administrazioak ahalegin handiak egiten ari dira, Europako Biodibertsitate Estrategiaren 5. Helburuan jasotako ekintzei jarraituz. Halere, EAEn ez dago Espezie exotiko inbaditzaileak kudeatzeko marko zehatzik.

## Natura-ondarearen gaineko presioak



## Natura-ondarearen gaineko efektuak

Habitat urrakorretako populazioen murrizketa/ desagerpena

Espezieen isolamendua

Faunaren desorientazioa

Aldaketa fenologikoak eta bizi-zikloa

Aldaketa ingurunearen eta organismoen ugalkortasunean

Ziklo biokimikoen aldaketa

Karbono-hustulekuen potentziala murriztea

Espezieen birbanaketa eta migrazioa

Aldaketak egituran (komunitateen dominantzia/ osaketa)

Substantzia toxikoen biometaketa

Espezie auktonoen gainbehera eta desagerpena

Espezieen desplazamendua lehiagatik

Habitaten degradazioa eta suntsiketa

Eta abar.



## d) Euskadiko biodibertsitatearen kudeaketari buruzko laburpena

Adierazi den bezala, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako administrazio publikoek bertako biodibertsitatea aktiboki babesteko eta

kudeatzeko ahalegin luzea eta etengabea egin dute. Hala, azken hamarkadetako lorpen nagusiak hauek izan dira:

Data	Euskadiko natura-ondarearen kontserbazioan izan diren mugarri nagusiak
1984	— Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren izendapena.
1987	— Euskadiko Urak Kontrolatzeko eta Zaintzeko Sarea.
1989	— EAEko lehen Parke Naturala deklaratu zen, Urkiolako Parke Naturala.
1990	— 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoa.
1992	— Tokiko Agenda 21 sustatzen hasi zen Euskadin.
1993	— 1. Euskal Landa Plan Estrategikoa (1993-1996).
1994	— 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa.
1996	— 167/1996 Dekretua, uztailaren 9koa, Basa eta Itsas Faunan eta Landaredian Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa arautzen duena.
1997	— EAEko Lurraldea Antolatze Gidalerroak (LAG). — Gobernu-kontseiluaren erabakia, Natura 2000 Sareko guneak hautatzeko.
1998	— Euskal Herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorra. — Landa Ingurunearen Garapenerako Legea.
2002	— Udalsarea21 sarea. — Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020.
2004	— Atlantikoko eskualde biogeografikoko GKLa onartu zituen Europako Batzordeak.
2006	— Mediterraneoko eskualde biogeografikoko GKLa onartu zituen Europako Batzordeak. — URA sortu zen (Uraren Euskal Agentzia).
2010	— Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia sortu zen, Pirinioetako Lan Elkartearen baitan.
2011	— EAEko Kalitate Estrategia Naturagune Babestuetan martxan jarri zen.
2012	— 25 Kontserbazio Eremu Bereziren (KBE) eta 2 Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuren (HBBE) izendapenaren amaiera.
2014	— IV. Ingurumen Esparru Programa 2020. — EAEko 2020rako lehenengo Geodibertsitate Estrategia.
2015	— Euskadiko Landa Garapen Programa, 2015-2020. — 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
2016	— Euskadin Natura 2000 Sarea osatzen duten 55 guneren izendapenaren amaiera: 47 Kontserbazio Eremu Berezi (KBE), 4 Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) eta 4 KBE-HBBE. — Euskadik, Natura 2000 Sareko eremu babestuei dagokienez, Europako batez bestekoa gainditzen du. EAEko natura-ondarea aktiboki kudeatzeak ekarri duen lorpen nabarmenetako bat gune babestuen sare bat sendotzea izan da.

Euskadiko biodibertsitatea kudeatzeko tresna nagusiak, lehen aipatutako mugarrak lortzeko tresnak izan baitira, hauek dira:

---

## Euskadiko natura-ondarea kudeatzeko tresna nagusiak

---

- **Natura-Baliabideen Antolamendu-Plana (BNAP):** natura-baliabideak babesteko tresna espezifiko da, eta bere baitan hartzen du, besteak beste, ezarri beharreko erabileren eta jardueren muga orokorrak eta espezifikoak zehaztea, leku horiek osatzen dituzten elementuen kontserbazio-egoeraren arabera.
  - **Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP):** Natura-Parke batean egin beharreko jarduerak agintzen ditu, 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Beraz, Natura-Parke bat kudeatzeko arau, jarraibide eta irizpide orokorrak ditu, baita, besteak beste, naturagune horretan garatzen diren jarduera ekonomikoen eta jolas-jardueren antolamendurako esparru normatiboa ere.
  - **KBEak eta HBBEak deklaratzeko eta kudeatzeko tresnak:** Natura 2000ko guneen (KBE eta HBBE) helburuei eta neurriei buruzko dokumentuak dira, habitaten gaineko zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Tresna horietan gune horietako habitat, espezie eta prozesu ekologikoen kontserbazio-egoera ona lortzeko edo mantentzeko araudiak, neurriak eta kudeaketa-gidalerroak daude.
- 
- **Natura-ondarearekin erlazio zuzenagoa duten Lurralde Plangintza Sektorialak (LPS).** Nekazaritza eta Basozaintzako LPS; Hezeguneen LPS; Ibaien eta Erreken ertzak Antolatze LPS; eta Kostaldea Babesteko eta Antolatze LPS.
- 
- **Arriskuan dauden espezieen kudeaketa-planak:** Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogotik eratorriak, eta gatibutasunean hazteko programak eta birpopulazioa, in situ eta ex situ kontserbazioa, hegazti sarraskijaleen janlekuak, jarraipena eta monitorizazioa har ditzakete barnean.<sup>40</sup>
- 
- **Fauna berreskuratzeko zentroak, Foru-Aldundiek kudeatuak:** Martioda, Arrano Etxea, Arizmendi eta Gorniz.
- 
- **Landareen material genetikoaren biltegiak, mintegiak, lorategi botanikoak:**
    - Gipuzkoako Material Genetikoaren Biltegia: Frasieroko Nekazaritza eta Ingurumeneko Laborategia, Iturrarango lorategi botanikoa, Arizmendiko mintegiak.
    - Ingurumeneko Ikerlanetarako Zentroko Landareen Material Genetikoaren Biltegia.
    - Neiker-Tecnaliaren Landareen Material Genetikoaren Biltegia.

(... / ...)

---

### • Europako programak:

**LIFE:** modu eksklusiboan ingurumenari dagokion Europar Batasuneko finantza-tresna bakarra da. Bere helburu nagusia garapen jasagarria eta 2020rako Europako Estrategiako eta ingurumenaren zein klimaren alorrean Batasuneko estrategietako eta planetako helburuak eta xedeak lortzen laguntzea da; hala, natura eta biodibertsitatea lehentasunezko arlotzat jotzen ditu<sup>41</sup>.

Adib.: LIFE+ Pro-Izki, Batasunaren intereseko habitaten leheneratzea EAEko estuarioetako LIFE, LIFE Lutreola, LIFE Tremedal, etab.

---

**Eskualde Garapeneko Europar Funtsa (EGEF):** helburu nagusitzat du Europar Batasuneko kohesio sozioekonomikoa sendotzea; horretarako, Batasuneko eskualdeen arteko desorekak zuzentzen ditu, eta lehentasunezko hainbat arlo nagusitan inbertitzen du gehienbat, esaterako, ikerketan, berrikuntzan, ingurumenaren babesean eta arriskuen prebentzioan.

Adib.: INTERREG IVC-REVERSE, POCTEFA-TXINBADIA, POCTEFA-OPCC, POCTEFA-BIDUR, POCTEFA-GURATRANS, etab.

---

**Nekazaritza Politika Erkidea (NPE):** Europar Batasuneko estatu kide guztientzako politika erkide bat da; hala, bere helburuak, besteak beste, nekazaritza-produktibitatea hobetzea, elikagaien segurtasuna bermatzea, baliabide naturalak era jasagarrian kudeatzea, paisaia kontserbatzea eta landa-eremuko ekonomia bizirik mantentzea dira. NPEren barnean, nabarmentzekoa da klimarako eta ingurumenerako (osagai berdea edo *greening*) onuragarriak diren praktikak ordaindu egiten direla; hala, oinarrizko ordainketa-eskubide bati lotutako azalera-unitate onargarri bakoitzeko urteko ordainketa bat egin daiteke, baldin eta klimarako zein ingurumenerako nekazaritza-praktika onuragarriak errespetatzen badira.

- **Nekazaritza Bermatzeko Nekazaritzako Europar Funtsa (NBNEF):** funts honek, kudeaketa partekatua erregimenean, Europako Erkidegoko Zuzenbidearen arabera egindako gastuak finantzatzen ditu, baldin eta gastu horiek zerikusia badute nekazaritza-ustiapeneko zuzeneko ordainketekin, nekazaritza-produktuen merkatuetako esku-hartzeekin, ustiapenak leheneratzearekin eta barne-merkatuan zein hirugarren herrialdeetan nekazaritza-produktuak sustatzeko neurriekin.
- **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF):** Europako Erkidegoaren ekarpen finantzarioa Landa Garapenerako Programetarako.

---

**Euskadiko Landa Garapenerako Programa, 2015-2020 (LGP):** euskal instituzioen tresna da, euskal landa-eremuan gauzatu nahi diren politikak sustatzeko eta babesteko; hala, programaren 4. Lehentasunaren arabera, nekazaritzarekin eta basogintzarekin erlazionatutako ekosistemak leheneratu, kontserbatu eta hobetu egin behar dira. Horretarako, honako hauek lortu nahi dira:

- Biodibertsitatea leheneratzea eta zaintzea —hor sartzen dira Natura 2000 guneak eta oztopo natural edo bestelako oztopo espezifikoak dituzten guneak—, orobat balio handiko nekazaritza-sistemak eta Europako paisaien egoera.
- Uraren, ongarrien eta izurrien aurkako produktuen kudeaketa hobetzea.
- Lurren higadura prebenitzea eta horien kudeaketa hobetzea.

(... / ...)

---

<sup>41</sup> <http://www.magrama.gob.es/es/ministerio/servicios/ayudas-subsidencias/programa-life/>

(... /...)

---

- **Ingurumenerako diru-laguntzak:**

- Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat.
  - Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalentsat, mankomunitateentzat, beste toki-entitate batzuentzat, tokiko erakunde autonomoentzat, tokiko garapen-agentzientzat eta tokiko merkataritza-sozietateentzat.
  - Lurraldea zaintzeko hitzarmenetan jasotako natura-ondarea aktiboki zaintzeko jarduerak finantzatzeko.
  - Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako.
- 

- **Lurraldea zaintzeko akordioak:** lur-zaintzak borondatezko akordio baten forma hartzen du, zaintza-erakundeen eta lurren jabe edo erabiltzaileen artekoa, edota natura-ondarea kontserbatzeko zaintza-erakundeen eta baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen titularren artekoa.
- 

- **Ingurumen arloko interpretazio- eta hezkuntza-zentroak.**

- Ekoetxeak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Zentroak
    - Ekoetxea Azpeitia - Ingurugiro Etxea Museoa.
    - Ekoetxea Meatzaldea - Peñas Negras Zentroa, Ortuella.
    - Ekoetxea Txingudi - Irun.
    - Ekoetxea Urdaibai - Madariaga Dorrea, Busturia.
  - Parketxeak: Foru Aldundiek Parke Naturaletan dituzten hezkuntza eta ingurune naturala ezagutzeko zentroak.
- 

- **Komunikazio-tresnak:** Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemaren bidez,<sup>42</sup> informazioa integratu, kontsultatu eta aztertu daiteke; eta horrez gain, datuak berriz erabiltzeko eta pertsonen zein erakundeen arteko lankidetzarako aukera ematen du.
- 

<sup>42</sup> [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/contenidos/informacion/naturaeuskadi/eu\\_def/index.shtml](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/contenidos/informacion/naturaeuskadi/eu_def/index.shtml)

## e) Biodibertsitateari buruz euskal gizarteak duen pertzepzioa

Estrategia honek duen garrantzia herritarrek daukaten kezkaekin ere egiaztatzen da: zeren biztanleen % 72k uste dute ingurumena babestea eta kutsaduraren aurka egitea berehala eta urgentziaz egin beharreko kontuak direla, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Ingurumenari eta Energiari buruzko 2013ko azterketaren arabera. Gainera, 2011ko Ekobarometro Sozialaren emaitzen arabera, EAEko hamar herritarretatik sei herritar inguruk uste du ingurumeneko faktoreek beren bizi-kalitatean nabarmen eragiten dutela.

Estrategia honek hartzen duen eremuari dagokionez, biodibertsitatea galtzeak eta baliabide naturalak agortzeak kezka-maila «ertaina» sortzen dute herritarretan eta herritarrek adierazi dute horri guztiari buruz dagoen informazioa-falta ere «ertaina» dela beste gai batzuekin erkatuz gero, esaterako, klima-aldaketarekin, hondamendiekin (naturalak izan edo gizakiak sortutakoak izan) edo uraren kutsadurarekin. Herritarren % 80k uste dute politikariek ingurumen-politikei politika ekonomikoek eta sozialek duten garrantzi berdina ematen saiatu behar diela.

EAEko 2011ko Ekobarometro Sozialaren arabera, lau herritarretik hiruk entzun dute noiz edo noiz «biodibertsitate» kontzeptua, baina herritarren % 29k bakarrik dakite benetan zer esan nahi duen. EAEko herritarrek honekin guztiarekin lotzen dute biodibertsitatearen galera: habitat-degradazioarekin eta espezie motak gutxitzearekin (% 35), animalia- eta landare-espezie batzuen desagertzearekin (% 29) eta espezie horiek desagertzeko arriskuarekin (% 14). Biztanleen % 30en ustez, biodibertsitatearentzako mehatxurik handienak gizakiak sortutako hondamendiak dira (petrolio-isuriak, istripu industrialak, etab.); % 28ren ustez nekazaritza intentsiboa, basogabetzea eta arrantzaren gehiegizko ustiapena; eta % 15en ustez, airearen zein uraren kutsadura.

Azkenik, nabarmentzekoa da herritarren % 10ek bakarrik entzun dutela European natura kontserbatzeko dagoen tresna nagusiari buruz, hau da, Natura 2000 Sareari buruz.

## f) Estrategia egiteko partaidetza-prozesua

Euskadiko Natura-ondarearen Diagnostikoa egiten zen bitartean, herritarrek parte hartzeko prozesu garrantzitsu bat egin da; eta horren bidez, parte hartu duten pertsonen, agente sozialen eta teknikarien iritziak eta kezka adierazten dituzten emaitzak lortu dira. Agente guztiek, gai honetan garrantzitsuak, oso arlo eta sektore desberdinei buruz aritu ziren, eta zituzten pertzepzio partikularrak adierazi zituzten.

Era berean, prozesu honetan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek, Foru Aldundiek, udalerriek eta gizarteak oro har (egin diren bileren, elkarrizketen eta foroen bidez). Era berean, prozesu honetan parte

hartu dute Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek, Foru Aldundiek, udalerriek eta gizarteak oro har (egin diren bileren, elkarrizketen eta foroen bidez). Foru Aldundien kasuan, natura-ondarearen inguruan dituzten eskumen garrantzitsuak direla-eta, Estrategia zehazteko prozesu guztian informatuta edukitzeko eta haien parte-hartze aktiboa bilatzeko ahaleginak egin dira. Horretarako, diseinatutako jardueretan parte hartzeko gonbidapen zuzena egin zaie. Gainera, kontuan hartu dira Diagnostikoaren gaiak eta irismena definitzeko eta 2030erako Estrategian edo 2020rako Ekintza Planean txertatu

diren jarduerak osatzen dituzten helburuak eta jarduteko ildoak idazteko.

Estrategiaren III. eranskinean gauzatutako partaidetza-prozesuari buruzko txosten osoa dago. Hauek dira txosten horretako datu garrantzitsuenak:

- 102 pertsonak parte hartu dute prozesuan, eta horien % 50 emakumeak izan dira.
- Partaidetza-prozesu osoan zehar behar izan diren orduak, guztira, 600 orduetik gora izan dira.
- 300 proposamen inguru bildu dira.

Partaidetza-prozesu honen helburu nagusiak hauek dira:

- Biodibertsitatearen Estrategiaren jarduketaren eremua eta irismena zehaztea, lehentasunak ezarrita eta gainerako plangintza estrategikoei koherentzia dutela bermatuta.
- Ekintza erkideko esparru bat eraikitzen gainerako administrazio publikoekin lan egitea, konpromiso eta ardura partekatuak zehaztuta.
- Estrategia berri honi buruz informatzea, eta parte hartzen duten pertsona zein agente guztien ahalik eta iritzi, proposamen, ekarpen eta iradokizun gehien jasotzea.

Estrategia eztabaidatzen eta lantzen pertsonen eta agenteen parte-hartze handia lortzeko, partaidetza-prozesua bost eratako jarduketan baitan garatu da. Jarraian, partaidetza-prozesu hau laburtuko dugu:

### Lan-tailerra Udalsarea21ekin

Udalsarea21en Batzorde Teknikoaren 48. bileran, 2015eko abenduaren 2koan, tailer hau egin zen: *Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiaren oinarriak tokiko ikuspegitik* zehazten eta egiaztatzen. Partaidetza-prozesuaren fase honen helburua zen prozesu horren tokiko ezaguera eta begirada txertatzea. Tailerrak honako helburu zehatz hauek zituen:

- Azken urteetan biodibertsitatearen arloan parte hartu duten udalerriek/eskualdeek garatutako ekintza-ildo nagusiak ezagutzea.
- Egindako lana balioestea, arrakastak eta desafioak edo oraindik betetzeko dauden erronkak identifikatuz.

- Estrategia prestatzeko orduan Udalen laguntza sustatzea, galdetegi zehatz bat betez.

Hala, tailer horretan hau egin zen: taldearekin ibilbide bati ekin zitzaion, 12 udalerrri parte-hartzaileek arlo horretan garatzen dituzten lan-ildo nagusiak partekatzeko; horren ostean, egindako lanaren balioespena egin zen, arrakastak eta desafioak edo oraindik betetzeko dauden erronkak identifikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak behar bezala erantzun beharko bailieke horiei guztiei. Ondoren, 7 galdeketa jaso ziren, tailerrean landutako alderdiak osatzen zituzten alderdiak zehaztuz.

### Elkarrizketak funtsezko agenteei

Bederatzi elkarrizketa pertsonalizatu egin zaizkie hainbat instituzio publikotako funtsezko agenteei, biodibertsitatearen alorrari buruzko ikuspegi globala eta zeharkakoa izateagatik hautatuak. Pertsona horiek erakunde hauetakoak dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Hirigintza Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia eta Landa Ingurunearen Garapenekeko Zuzendaritza Nagusia.
- URA, Uraren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari atxikia.
- Garapen Jasangarriari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedra, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ihobe, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ingurumen-jarduketarako sozietate publikoa.
- HAZI Fundazioa, Itsasmenetik, IKT eta Kalitatea Fundazioa enpresen fusioa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikia.
- AZTI-Tecnalia Fundazioa, Itsasoaren eta Elikagaien Ikerketan espezializatutako Euskadiko Zentro Teknologikoa.
- Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Patronatua, Urdaibain eskumena duten administrazioetako ordezkariak eta ekonomia-, gizarte- eta

ingurumen-intereseko erakunde eta elkarte esanguratsuetako ordezkariak osatutako kide anitzeko organoa da.

Partaidetza-ekimen honen helburua hau zen: beren ibilbidearen eta/edo duten postuaren arabera hautatutako pertsona horien iritzia biltzea eta integratzea; horrela, EAEko 2030erako Biodibertsitatearen Estrategia eratuko luketen oinarritzko alderdi estrategikoak zehaztu eta sendotu nahi ziren.

### **Galdetegiak pertsonal teknikoari**

Jarduketa honetan, funtsezkotzat jotzen diren teknikariei, Estrategia honen baitako hainbat alorretan duten parte-hartzeagatik, 10 galderako galdetegi bat bidali zaie eta online bete dute. Zehazki, 37 agenteri bidali zitzaion (hiru Foru Aldundietakoak, Kostako Mugapekoak, Konfederazio Hidrografikotakoak eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak).

Kontsulta honen helburua Diagnostikoko alderdi batzuk sendotzea zen, baita Estrategiaren baitako jarduketa-lerro lehenetsiak zein izan behar zuten jakiteko oinarriak sendotzea ere.

### **Biodibertsitateari buruzko lehenengo Foro Soziala egitea**

Honako hauek izan ziren partaidetza-foroaren helburu teknikoak:

- EAEko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak etorkizunean lortu behar duen ikuspegia edo egoera egiaztatzea: gako nagusiak.
- Estrategiari forma emango dioten eta etorkizunean lortu beharreko egoera lortzeko lagundu behar duten irizpideak eta lan-ildoak definitzea.

Helburu horiek lortzeko, batetik, Euskadiko natura-ondarearen egoerari buruzko Azterketa eta Diagnostikoa aurkeztu zen, eta partaideei eskatu

zitzaion 2030. urtean biodibertsitatearen egoerak zein izan behar duen adierazten duen hasierako ikuspegiaren proposamen bat egiaztatzea.

Lortu nahi den etorkizuneko testuingurua erreferentziatzen hartuta, Estrategiak aintzat hartu behar duen lehentasunezko 6 arreta gune zehaztu ziren, eta horiei buruzko lan-mahai hauek antolatu ziren:

- Baliabideak modu jasangarrian eta bidezkoan erabiltzea.
- Ekosistemak babestea eta kontserbazio aktiboa.
- Natura-kultura.
- Kolaborazio eta parte-hartze publiko/pribatua.
- Koherentzia eta zeharkakotasuna. Efikazia eta eraginkortasuna kudeaketan.
- Ezagutza sortu eta partekatzea.

Mahai horietan, besteak beste, erakunde publiko eta pribatuetako, elkarte kontserbazionistetako, ikerketako ehun ordezkari aktiboki parte hartu zuten lehentasunezko helburu eta jarduketa-lerro ugari eztabaidatzen eta proposatzen.

### **Irekia webgunearen plataforman prozesua sustatzea**

Irekia plataforma digital honen bidez (Eusko Jaurlaritzak lan teknikoak hasi zirenetik gaitu du), 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoaren Biodibertsitatearen Estrategiaren lanketa-prozesuan parte hartzeko interesa duten pertsona guztiak gonbidatu dira. Herritarrek egokitzat jo dituzten iradokizunak egin dituzte, beren gogoeten eta prozesuan zehar plataforma horretan jarri den dokumentazioaren arabera.

Partaidetza-prozesuan erabilitako metodologiari esker ondorio batzuk lortu dira adostasunez, eta ondorio horiek dokumentu estrategiko honetako hainbat Xede, Jarduketa-lerro eta Ekintzak egiteko prozedura bideratu dute.

## 2. Ikuspegi estrategiko bat





## 2030erako Ikuspegia

**Euskadik ingurune naturalaren kontserbazio-egoera hobetuko du, ingurune naturalaren degradazioa geldituta agente guztien erantzukidetasunaren bidez; eta aldi berean, herritarrek zerbitzu ekosistemikoen aberastasuna balioetsiko dute, ingurune naturalak gizakiari ongizatea ematen baitio. Hori guztia funtsezkoa da etorkizuneko belaunaldiei erresilientziadun lurralde batean integratutako biodibertsitate bat uzteko.**

Hemen aurkezten den ikuspegia Euskadik lortu nahi duen nahia da, hainbat sektore politika bidera daitezen eta pertsonak, enpresak eta gainerako erakunde publiko zein pribatuak konprometitu daitezen biodibertsitatearen alorrean erantzukidetasun-ahalegina egiteko.

Ikuspegi honen helburua Euskadiko biodibertsitatearen kontserbazio-politikan jauzi kualitatibo bat ematea da, eta joera aldatzeko aukera ematea garapen-eredu berriak sendotzean eta ezartzean, berritzaileenak diren Europako herrialdeei pausoei jarraikiz.

Egia bada ere egin beharreko bidea zabala dela, Biodibertsitate Estrategia honen bidez, biodibertsitatearen eremuko gidalerroak markatu ahal izango dira datozen urteetan.

Ikuspegi hori erdiesteko, jarraian Xedeak, Jarduketa-lerroak eta Ekintzak azalduko dira (batez ere, Diagnostikoaren bidez eta partaidetza-prozesuko hainbat faseren bidez identifikatuak), eta 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoaren Biodibertsitatearen Estrategia eratzen dute.

### **3. Biodibertsitatearen Estrategiaren 2030erako Xedeak eta Jarduketak- lerroak**



2030erako ikuspegitik 4 **Xede** atera daitezke, eta horiek izango dira Biodibertsitatearen Estrategiarako lehentasunezko jarduketa-ardatzak: lehenengo biak natura-ondarea kontserbatzeko alderdietatik lortu dira; hirugarrenak naturaren ezaguerarekin eta kulturarekin zerikusia du eta azkenak gobernantza-sistemarekin. Eta hori guztia ingurune naturalean zeharka eragiten duten politika publikoen ahalik eta koherentzia handiena lortu nahi duen eraginkortasun- eta efizientzia-esparru batean egingo da.

Xede horietatik **10 Jarduketa-lerro** sortu dira, eta horiek zehazten dute 2030. urtean Euskadik izan nahi duen lekua; hala, Lerro bakoitzak etorkizuneko nahi bat adierazten du. Era berean, Lerro horiek **40 Ekintzetan** banatzen dira. Horiek guztiek 2020rako norabidea markatuko dute eta, horrela, aldi horretako horizonterako ingurumen-politikaren plangintzan koherentzia eta koordinazioa izatea bermatuko da. Ekintza horiek lehentasunezkoztat jo dira 2020rako, Diagnostikotik eta partaidetza-prozesutik eratorritako alderdi eta behar garrantzitsuenak identifikatu ondoren.

---

## Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako **Biodibertsitate Estrategia**

---

### 2030erako IKUSPEGIA



### 2030erako 4 HELBURU

1. Ekosistemak babestea eta leheneratzea
2. Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa
3. Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea
4. Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea



### 2030erako 10 JARDUKETA-LERRO



### IBILBIDE-ORRIA: 2020rako 40 EKINTZA

---

## 1. Xedea

### Ekosistemak babestea eta leheneratzea

Estrategia honen helburuetako bat EAEko habitat naturalak eta erdi naturalak babesteko jarduketak egitea da, gehienbat egoera txarra dutenetan eta gune babestuetan jardungo da. Azpiegitura berdearen aldeko apustua egitea, lurraldearen konektibitatea sustatuko duen eta habitaten zatiketa zein galera arinduko duen elementua izango baita; horrez gain, beste jarduera batzuekin batera, habitaten kalitate ekologikoa hobetzen lagunduko du, baita hainbat ekosistemen egoera ona mantentzen ere, gizarteari zerbitzu garrantzitsuak eskaintzen jarrai dezaten. Era berean, habitat eta espezie horiei buruzko ezagueraren oinarria handitu behar da, erabakiak hartzen laguntzeko.

Bestetik, beharrezkoa da basaflorearen eta basafaunaren espezieen aniztasuna mantentzea; horregatik, epe laburrean edo ertainean desagertzeko arrisku handiena duten horiekin egingo da ahalegin handiena. Hala, horien kontserbazio-egoera hobetzeko, kudeaketa eta leheneratze-planak ezarri beharko dira. Garrantzitsua da, berebat, egiazki arriskuan ez badaude ere, ekosistemen funtzionamenduan eginkizun garrantzitsua duten espezieekin lan egitea. Biodibertsitatearen Estrategiak eten nahi duen arazoetako bat Espezie exotiko inbaditzaileen alorreko erreferentzia-esparrurik eza etetea da; hala, jarduketa-lehentasunak eta jarraibideak ezarriko dituzte administrazio publikoek, ikertzaileek, agente sozialek eta ekoizpen-sektoreek batera lan egin dezaten espezie eta habitat naturalentzako mehatxu hau prebenitzen eta arintzen laguntzeko helburuarekin.

Bai hiriek (askotan natura kontuan izan gabe kudeatzen dira) bai landa-eremuko herriek (ingurune naturalak eskaintzen dituen zerbitzuak zuzenago erabiltzen ditu) gure natura-ondarea kontserbatzea garrantzitsua dela ulertu behar dute, guztion onerako izango baita. Planetako sare biziarekin berriz konektatu behar da kulturalki eta emozionalki, ingurune naturalean oinarritzen diren erabilerekin ingurunearen egoera ona errespetatu eta kontserba dezaten, biodibertsitatearen kontserbazioarekin bateragarriak diren tokiko praktikak sustatuta. Gizakiaren jarduerak eta biodibertsitatearen babesak bat egingo dutela bermatu behar da, beraz.

#### HONAKO HAUEK DIRA 2030erako 1. XEDEA LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUKETA-LERROAK:**

**Habitaten eta espezieen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, erresilientziadun eta funtzio anizdun lurralde baterantz aurrera egiteko.**

**Espezie Exotiko Inbaditzaileen prebentzioan eta kontrolean aurrera egitea.**

**Erantzukidetasuna sustatzea eta baliabide naturalen erabilerak eta ingurune naturalaren kontserbazioa bateratzea.**

---

## 2. Xedea

### Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa

---

Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) sartzen dira Natura 2000 Sarean, habitatei eta hegaztiei buruzko zuzentzarauen bidez izendatuak hurrenez hurren, eta tresna europar honen bitartez kontinenteko gunerik nabarmenenak babestu eta balioetsi nahi dira; hala, arreta berezia jartzen zaio habitatak eta espezie mehatxatuak babesteari.

2020rako Biodibertsitatearen Estrategia europarrak ezarri duen helburu nagusietako bat hegaztiei eta habitatei buruzko zuzentzarauak osorik aplikatzea da; horrek esan nahi du antzeko kudeaketa-planak edo tresnak egin eta aplikatu behar direla, betiere Natura 2000 Gune guztietarako kontserbazio- eta leheneratze-neurriak badituzte.

Biodibertsitate-Estrategia europarraren bitarteko berrikuspenak adierazten du, Natura 2000 Sarea osa dadin, beharrezkoa dela ekimen eta inbertsio gehiago egitea 2020. urtera arte. Era berean, berrikuspenak ezinbestekotzat jotzen du Natura 2000ko Gune guztiak era eraginkorren kudeatzen direla bermatzea eta kontserbazio-helburuak lortzeko baldintza administratibo eta finantzario egokiak finkatzea.

Natura 2000 guneen sarea da, baita udalerriko eta eskualdeko pertsona eta erakunde aktiboen sarea ere. Biodibertsitate balioetsuko guneen sarea da; baina horrez gain, gune babestu horietako komunitateei zerbitzu ekosistemikoez baliatzeko aukera ere ematen die. Biodibertsitatea mantentzen laguntzen du, baina, aldi berean, izendatutako tokietako eskakizun zientifikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aintzat hartzen ditu. Natura 2000 Sare europarra modu eraginkorren kontserbatzeko eta kudeatzeko lan eginez gero, sareak bere baitan hartzen duen lurraldearen jasangarritasun osoa bermatzen lagunduko du.

Sare hau Euskadin asko zabalduta bada ere, erronka eta ahaleginak gehienbat toki horiek era eraginkorren kudeatzera eta sarea eratzen duten tokiak kontserbatzeko eta kudeatzeko helburuen zein neurrien tresnak ezartzera bideratu behar dira, helburu partekatu bat izan dadin, eta euskal herritarrentzako aukera-iturri.

---

HONAKO HAUEK DIRA 2030erako 2. XEDEA LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUKETA-LERROAK**:

---

**Natura 2000 guneak era eraginkorren kudeatzen direla bermatzea.**

---

**Natura 2000 Sarea aukerarako tresnatzat jotzeko oinarria ematen duten tresnak sustatzea.**

---

---

### 3. Xedea

## Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea

---

Xede honek biodibertsitatea gizartearentzat onura-iturria, bai zuzenekoa bai zeharkakoa, dela onartu dadila du jomuga. Horrek esan nahi du natura errespetatzera bideratutako kultura bat sustatzea, aberastea eta partekatzea, zerbitzu ekosistemikoak nabarmenduz.

Gizarte zibilak, erakunde pribatuek eta botere publikoek biodibertsitatea babesteko neurriak gauzatzeak duen garrantziari ematen dioten ulermen eta parte-hartze mailaren araberakoa izango da, 2030erako EAEko Biodibertsitatearen Estrategiak aplikatzen denean izango duen arrakasta. Horretarako, ezinbestekoa da zerbitzu ekosistemikoek herritarrei ekartzen dieten onura sozioekonomikoari buruzko kontzientzia hobetzea; horretarako, teknikariei, erakunde publikoetakoak izan edo pribatukoak izan, prestakuntza eguneratua eskaini behar zaie, zabalkunderako eta herritarren kontzientziaziorako kanpainak egiteaz gain.

Gainera, partaidetzarako guneak izatea funtsezkoa da komunikazioa, elkarrizketa eta ezaguera-sorkuntza errazteko. Horrela, gainera, sektore askotako agenteak (ikerketa, enpresa pribatuak eta publikoak, sozietateak, hezkuntza-elkarteak, etab.) elkartu ahal izango dira.

---

HONAKO HAUEK DIRA 2030erako 3. XEDEA LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUKETA-LERROAK**:

---

**Gizartea sentsibilizatzea eta inplikatzea ingurune naturala kontserbatzeak duen garrantziaren inguruan.**

---

**Informazioa sortu eta partekatzea.**

---

#### 4. Xedea

### Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea

Aurreko Xedeari jarraikiz, ezagutza-oinarri on batekin, herritarrek, teknikariek eta, bereziki, erabakiak hartzen dituen arduradunek ikuspegi egokia txertatuko dute, plan eta tresna normatiboetan biodibertsitatea hobeto balioesteari eta kudeatzeari dagokionez.

Erakunde arteko lankidetzeta eta kooperazioa ezinbestekoa da biodibertsitate-kontserbazioaren alorrean: esparru normatiboa batera egiteko; proiektu komunitaria bideratutako baliabide finantzarioak, giza baliabideak eta teknikoak batera aplikatzeko; kontserbaziora bideratutako finantzazio partekatuko plan eta proiektuak batera idazteko, etab.

Biodibertsitatearen kontserbazioa epe luzeko ekonomia bat da, eta tresna ekonomiko-finantzarioak eta zerga-alorrekoak beharrezkoak dira ekonomia hori babesteko eta zerbitzu ekosistemikoak behar bezala kudeatzeko, autonomia-erkidegoaren, lurralde historikoen eta tokiko erakundeen lurralde-dimentsioan oinarriturik.

Partaidetzarako guneak sortuta, elkarriketak eta topaketak izanez gero, agente partikularrak eta enpresa-sektoreak zein toki-administrazioak biodibertsitatea babesteko eta kontserbatzeko gehiago inplikatzeko lortu ahal izango da. Adostasunak lortzeko abiapuntu gisa, beharrezkoa da lurraldean diharduten hainbat agenteren eginkizuna aitortzea eta ikusgarri egitea.

Gainera, komenigarria da lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea nekazaritzan, basogintzan edo natura babesten diharduten eragile ekonomiko eta sozialekin, ekosistemak eta ekosistemetako zerbitzu jakinak mantentzeko. Berezi, biodibertsitatearen kontserbazioarentzat onuragarriak diren nekazaritzako ustiategi tradizionalak mantentzeko pizgarriak emango dira.

---

HONAKO HAUEK DIRA 2030erako 4. XEDEA LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUKETA-LERROAK:**

---

**Biodibertsitatearen alorreko politiken koherentzia eta zeharkakotasuna bermatzea.**

---


**Natura-ondarea kudeatzeko, hainbat agente publiko eta pribatuen arteko lankidetzan eta partaidetzan aurrera egitea.**

---

**Etengabe hobetzea Naturagune Babestuen kudeaketa.**

---

# 4. 2020rako Ekintzak. Euskadiko Natura- -ondarea hobetzeko Ekintza-plana





Estrategia honetan zehaztutako ikuspegiak eta lerroek orain urrun dagoen (2030. urtea) eta lortu behar den azken helburu bat ezarri nahi dute. Puntu horretara iristeko, beharrezkoa da epe laburreko eta ertaineko ekintzak zehaztea, baina ekintza horiek eguneratu ahal izango dira aurrerapen zientifiko zein tekniko berriak gertatu ahala. Horrela, 2030erako Ikuspegiak 2020an bitarteko mugarri bat izango du, eta bertan hurrengo urteetan egin beharreko ekintzak eguneratuko dira.

Ildo horretan, Biodibertsitatearen Estrategia garatzeko aldi horietako lehena 2020. urtea izango da, «2020ra bitarteko Biodibertsitateari buruzko Europar Batasunaren Estrategian» ezarritako konpromisoekin

bat. Beraz, atal honetan, horizonte horrekiko ekintza batzuk zehaztu dira, hau da, 2030erako ezarritako Ikuspegi eta Jarduketa-lerro horiek lortzeko lehenengo urratsak. Kudeaketa-ereduaren atalean aurrerago azaltzen den bezala, Ekintza horiek berrikusi eta eguneratu beharko dira 2020an; eta, horrela, Estrategia behar berrietara egokitzen ahalegindu, 2030erako ekintza zehatzak ezarriz.

Partaidetza-prozesuan jasotako ekarpen guztiek Lehentasunezko Ekintzak idazteko baliagarriak izan dira, 2020. urterako bide-orria izango baitira, ezarritako Xedeen lorpenean aurrera egin ahal izateko.

## 1. Xedea

### Ekosistemak babestea eta leheneratzea

#### Jarduketa-lerroa:

#### Habitaten eta espezieen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, erresilientziadun eta funtzio anizdun lurralde baterantz aurrera egiteko

1. EAEko natura-ondarea ebaluatzeko eta jarraipena egiteko sistema bat garatzea, bertan sartuz Natura 2000 Sarea.
2. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoa berrikustea.
3. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoko espezieentzako kudeaketa-planak egin eta onar daitezela sustatzea.
4. Azpiegitura berde bat diseinatzea, lurralde-antolamenduaren baitan funtzio anitz dituzten eta elkarri konektatuta dauden guneen sare bat izan dadin.
5. Geodibertsitatea kontuan hartu beharreko elementu gisa txertatzea Naturagune Babestuak planifikatzeko eta kudeatzeko tresna berrietan.
6. Lurraldeko hainbat erabilera sektorialen alorrean, jardunbide egokien kodeak egitea eta hartzea natura-ondarearen kontserbazioari dagokionez.
7. Jarraibideen eta irizpideen dokumentu bat egitea, habitatak eta ekosistemak leheneratzeko lehentasunak ezar daitezen.
8. Itsas Eremu Babestuen Sare bat bultzatzea.
9. Ekosistemen erresilientzia sustatzea, ingurune naturalaren kudeaketan klima-aldaketaren aldagaia sartuta.

---

**Jarduketa-lerroa:****Espezie Exotiko Inbaditzaileen prebentzioan eta kontrolean aurrera egitea**

---

10. Espezie Exotiko Inbaditzaileen arriskuen azterketa bat egitea, espezieen eta guneen lehentasuna mugatuta.
- 
11. Alerta-sistema bat garatzea, Espezie Exotiko Inbaditzaileak gunerietara zabaldu direla goiz detektatzeko.
- 
12. Diagnostikoa eta jarduketa-proposamenak aztertzea, Espezie Exotiko Inbaditzaileen merkataritza-problematikari heltzeko.
- 
13. Lan-esparru bat garatzea, lehentasunezko Espezie Exotiko Inbaditzaileak kontrolatzeko praktikak era ekosistemikoan eta koordinatuan egiteko.
- 

---

**Jarduketa-lerroa:****Erantzukidetasuna sustatzea eta baliabide naturalen erabilerak eta ingurune naturalaren kontserbazioa bateratzea**

---

14. Jardunbide egokiei buruzko esperientziak hedatzea, baldin eta biodibertsitatea kontserbatzen laguntzen badute eta ekoizpen-sektoreetan ekonomia, gizarte eta ingurumenaren aldagaiak integratzen badituzte.
- 
15. Biodibertsitatea babestearekin erlazionatuta dauden Landa Garapeneko Programako nekazaritza eta ingurumeneko eta baso-ingurumeneko neurriak hartzen dituen azalera sustatzea.
-

## 2. Xedea

### Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa

#### Jarduketa-lerroa:

#### Natura 2000 Sareko guneak era eraginkorrean kudeatzen direla bermatzea

16. Natura 2000 Sarea sustatzea, sare horretako guneak kontserbatzeko helburuei eta neurriei buruzko dokumentuak martxan jarrita eta aplikatuta.
17. Natura 2000 Sarearen legezko plangintza egitea Euskadin. Plan horrek kontuan izango ditu alderdi teknikoak, administratiboak eta gobernantzakoak, eta, bereziki, Natura 2000ko hainbat eragileren eginkizuna, sarea gara dadin.
18. Euskadin Natura 2000 Sareari jarraipena egiteko eta zaintzeko sare bat sortzea; hala, sare horrek habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ebaluatuko du, baita Natura 2000 Sareak biodibertsitatea eta geodibertsitatea hobetzeko egiten duen ekarpena ere.

#### Jarduketa-lerroa:

#### Natura 2000 Sarea aukerarako tresnatzat jotzeko oinarria ematen duten tresnak sustatzea

19. Natura 2000 Sarearen eredu ekonomikoa aztertzea eta zehaztea, eta eta tresna ekonomiko-finantzarioak eta zerga-alorrekoak sustatzeko ildoak martxan jartzea Sarearen helburuak lortzeko.
20. Natura 2000 Sarearekin erlazionatutako ahalegin eta emaitza sozioekonomikoa ebaluatzea.
21. Jardunbide egokien katalogo bat egitea, Natura 2000 Sarearen emaitzak nabarmenduko dituen, jarduketa horiek aitortuko dituen eta EBean dagoenarekin bat egingo duena.
22. Ingurumen-zerbitzuengatik ordainketak garatzea, erabilera bateragarriak edo ingurune naturala babesten laguntzen duten erabilerak sustatzeko.

### 3. Xedea

## Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea

#### Jarduketa-lerroa:

#### Gizartea sentsibilizatzea eta inplikatzea ingurune naturala kontserbatzeak duen garrantziaren inguruan

23. Biodibertsitateari (zerbitzu ekosistemikoak, Natura 2000 Sarea, basafloa eta basafauna, Espezie Exotiko Inbaditzaileak, etab.) buruz herritarrek duten kezka eta sentsibilizazioa balioestea.
24. Natura-ondareak gizartean, ekonomian, ingurumenean eta kulturaren eskaintzen dituen onurak nabarmentzea, batez ere, interpretaziorako eta ingurumen-hezkuntzarako zentrozen sare bat sortuta.
25. Hiri-biodibertsitatea sustatzea, herritarren ikuspegia aintzat hartuta, azpiegitura berdearen bidez.
26. Biodibertsitatearen Foro Soziala sortzea, urteko partaidetzarako gune gisa, hainbat eragile elkartu eta hitz egin dezaten.
27. Nagusiki, Natura 2000 Sareari buruzko komunikaziorako eta sentsibilizaziorako programa bat garatzea.
28. Euskadiko biodibertsitatearen adierazle nagusiekin Ingurumen-Profil bat egitea.

#### Jarduketa-lerroa:

#### Informazioa sortu eta partekatzea

29. Administrazio publikoetarako teknikarientzako prestakuntza-ikastaroak antolatzea, biodibertsitateari buruzko ezagutza egunera dezaten.
30. Euskadiko Naturari Buruzko Informazio Sistema sustatzea eta sendotzea.
31. Natura-ondareari buruzko zientzia-herritar programak mantentzea eta sustatzea.
- 32- Euskadiko Biodibertsitatearen Batzorde Zientifikoa sortzea, besteak beste, Unibertsitatearen eta erreferentzia-zentrozen partaidetzarekin, alor honetako ikerketa-ildoak aztertu eta proposa ditzan.

#### 4. Xedea

### Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea

#### Jarduketa-lerroa:

#### Biodibertsitatearen alorreko politiken koherentzia eta zeharkakotasuna bermatzea

33. Biodibertsitatearen aldagaia plan, programa eta proiektu sektorialetan integratzea, 2020 IV. Ingurumen Esparru Programan era aktiboan parte hartuta.
34. Biodibertsitatearen alorrean, koordinazio teknikorako eta politikorako laneko azpibatzerde bat sustatzea, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako ingurumen sailen eta lehenengo sektorearen sailen partaidetzarekin.
35. Natura-ondarearen alorrean ingurumenari buruzko zerga-sistemak duen potentzialtasuna aztertzea.

#### Jarduketa-lerroa:

#### Natura-ondarea kudeatzeko, hainbat agente publiko eta pribatuen arteko lankidetzan eta partaidetzan aurrera egitea

36. Lurraldea zaintzeko akordioak eta biodibertsitatearen kontserbazioan gizartea inplikatu dadila sustatzen eta aitortzen duten beste tresna batzuk bultzatzea.
37. Hiri-ingurunean naturan oinarritutako irtenbideak garatzea, udalerriek eginkizun aktiboa izatea sustatuz, Udalsarea21 Udalerrien Sarearen bidez.
38. Biodibertsitatea babesteko eta kontserbatzeko enpresa, gizarte eta administrazio publikoen arteko lotura iraunkorrak eta eraginkorrak sustatzea eta sortzea.

---

**Jarduketa-lerroa:****Etengabe hobetzea Naturagune Babestuak**

---


39. Kontserbazioaren, erabilera publikoaren eta garapen sozioekonomikoaren alorretan kudeaketaren kalitatea hobetzea.

---

40. Naturagune Babestuen kudeaketa-egituren eraginkortasuna eta horien ebaluazioa hobetzea.

---

# 5. Kudeaketa-eredua: governantza, analisi ekonomikoa eta jarraipena





## a) Gobernantza

Jatorrizko Hegaztiei buruzko Zuzentaraua (79/409/EEE Zuzentaraua), duela 37 urte onartua, naturari buruzko EBren lege-testu zaharrena da, nahiz eta eguneratu egin duen 2009/147/EE Zuzentarauak, batez ere, forma aldetik. Bestetik, Habitategi buruzko Zuzentarauaren (Natura 2000 Sarea sortu zuen), duela 24 urte onartua, jatorrizko bertsioak indarrean jarraitzen du (92/43/EEE Zuzentaraua), salbu eta ondoren aldatu behar izan ziren gai jakin batzuetan. Oso esanguratsua da berriki egindako (2011) eta indarrean dagoen «EBko Biodibertsitate-Estrategia 2020ra arte: gure bizi-asegurua eta kapital naturala» izeneko estrategiak lehenengo helburu gisa ezartzea osorik aplika dadila Habitategi eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauak, horrek argi adierazten baitu bi zuzentarauak ezartzeko zailtasunak daudela. Era berean, Zuzentaru horiek onartu zirenetik 37 eta 24 urte daramatzate indarrean, eta horrek agerian jartzen du biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko araudia eratzean asmatu egin zela eta zer-nolako nahia zegoen. Azkenik, biodibertsitatearen politikak beste politika publiko batzuekiko duen berezitasun bat adierazten du: erritmo eta inertzia propioak ditu, motelagoak, eta, beraz, lau urteko politika legegintzaldi-zikloetan eta/edo programazio zikloetan horiek sartzeko eta ebaluatzea zailagoa da.

Euskadik Europarekin bat egiten du biodibertsitate-politikaren ezaugarri horietan. 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren 3. Xedeak hau adierazten zuen: «Natura eta biodibertsitatea babestea, sustatu beharreko balio aparta» eta haren jarduketak, bai eremuak eta espezieak zaindu eta babesteari dagokionez, bai jasotako gainerako alderdiei dagokionez (ekosistemak leheneratzea, igarobide ekologikoen sarea, biodibertsitateari buruzko ikerketa eta abarrak) oso indarrean daude oraindik, izan ere, aipatu dugun moduan, arau- eta estrategia-esparrua ez da ia aldatu argitaratu zenetik aurrera.

Bestetik, azken urteetan natura babesteko ikuspuntu osagarriak sortu dira, eta horien bidez pragmatikoagoak

edo instrumentalagoak (balio zientifikoa, balio estetikoak, jolaserako balioa, hezkuntza-balioa edo zuzenean erabiltzeko balioa) diren argudioek indarra hartu dute. Argudio horiek guztiek, berebat, kontuan hartzen dute ekosistemek gizartearen bizi-kalitateari eta ongizateari egiten dien ekarpena. Ildo horretan, ezinbestekoa da biodibertsitatea eta natura-ondarea babesteko eta hobetzeko irizpideak beste politika batzuetan integratzea, esaterako, nekazaritzan, basogintzan edo lurralde-antolamenduan.

Gai horiek guztiek Euskadiko biodibertsitatearen politikaren kudeaketa- eta gobernantza-eredua baldintzatzen dute. Gainera, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiek eta Udalek alor honetan eskumenak izatea, eta herritarrek biodibertsitatea zaintzeko eta babesteko eragile bat izatea erronka bat dira. Horregatik, zeharkako eta partaidetzako gobernantza-sistema bat behar da, bertan alderdi guztiek era aktiboan parte har dezaten jarritako Xedeak lortzen.

Euskadik natura kudeatzen eta kontserbatzen duen ibilbide luzeari esker, funtzioei dagokionez, hainbat helburu dituzten erakundeak eratu dira, horien guztien jarduketak koordinatu behar dira kudeaketa eraginkorra lortzeko:

- **Naturzaintza**, 1994. urtean sortu zen Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legean; kide anitzeko aholku- eta lankidetzako organoa da Naturagune Babestuei dagokionez. Kontseilu honetako kideak erakunde hauetakoak dira: Eusko Jaurilaritza (Ingurumen eta Lurralde Politika Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila), hiru Foru Aldundiak, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte), Unibertsitatea, nekazaritza-sindikatuak, elkarte kontserbazionistak eta basoginen elkarteak, baita aditu entzutetsuak ere. Kontseilu honen funtzio nagusiak dira baliabide naturalak antolatzea eta natura kontserbatzea txostenak, irizpenak eta proposamenak eginda berak bere ekimenez edo Legebiltzarrak, Eusko Jaurilaritzak edo Foru Aldundiek hala eskatuta, nahiz eta bere eginkizuna ere baden lurraldea kudeatzeko ardura duten Administrazio desberdinen arteko koordinazioa sustatzea eta

laguntzea baliabideak gehiago babesteko, baita naturaren kontserbaziorako hezkuntza, ikerketa zientifikoa, naturaren hedapena eta zabalkundea ere.

• **Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea**, 1998an sortua eta bere funtzioetan ingurumeneko alor guztiak sartzen dira; bere funtzioak gehienbat Ingurumen Esparruko Programa garatzeko egindako planen eta programen berri ematea da, eta Batzordean ordezkariak duten erakundeek ingurumenaren alorrean garatzen dituzten jarduketaren guztien koordinazioa sustatzea eta jarraipena egitea. Aipatutako erakundeak hauek dira: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Segurtasun Saila, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saila eta Osasun Saila, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaz gain; Foru Aldundiak eta Euskadiko Udalen Elkarte – EUDEL. Batzorde honen eginkizuna ere bada ingurumen-baliabideen katalogoen berri ematea.

• **Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseilua** 1998. urtean sortua, planen eta programen ingurumen-politikaren alorreko aholku- eta proposamen-erakunde bat da, eta berari dagokio neurriak proposatzea ingurumen-politikak eta enplegu-sorkuntza, garapen jasangarria, ekimen ekonomiko publikoaren zein pribatuaren koordinazioa, eta ingurumenaren alorrean herritarrek parte hartzea eta gaiarekiko sentsibilizatzea. Kontseilu honen funtzioa ere bada ingurumen-politikan unibertsitatearen eta ikerketa-zentroek partaidetza sustatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren antzeko eraketa du, baina Segurtasun Sailak ez du ordezkariarik<sup>43</sup>, eta erakunde hauetako ordezkari hauek guztiak gehitu beharko litzaizkioke: erkidegoko sektore ekologistak ordezkatzeko dituzten elkarteetako eta herritar-mugimenduetako ordezkariak; autonomia-erkidegoan ordezkariak handiena duten sindikatuak; ingurumenarekin zerikusia duten zentro teknologikoak; ingurumenarekin erlazionatutako

ikerketa-zentroak; EHU eta ingurumenaren alorreko pertsona entzutetsu bat.

• **Landaberri**, Landa-garapenari buruzko apirilaren 8ko 10/1998 Legeak sortua landa-garapenaren eta nekazaritzaren alorreko erakundeen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako erakunde gisa. Bertako ordezkariak erakunde hauetakoak dira: Eusko Jaurlaritzako Lurralde-antolamenduko eta Industriaren Alorra, Foru Aldundiak eta autonomia-erkidegoko Udalerriak, eta lurraldean eragiten duten planen berri ematen du, besteak beste, BNAP, EKPZ eta Natura 2000 Sarea.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren (Ingurumen Sailburuordetzaren bidez) ardura da Biodibertsitatearen Estrategiaren ezarpena koordinatzea 2020rako Planaren bidez, nahiz eta horretarako Jaurlaritzako beste Sail batzuek parte hartu behar duten. Era berean, Estrategia ezin da gauzatu Foru Aldundien eta Udalen inplikaziorik gabe. Natura Ingurumenearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak koordinatzen du politikaren ebaluazioa eta jarraipena, aginte-koadroko adierazle bidez.

Biodibertsitatea babesten eta zaintzen parte hartzen duten agente guztiek aktiboki inplikatzeko direla eta horretarako bideratzen diren baliabideak era eraginkorrean erabiltzen direla bermatzeko; 34. Ekintzan jasotzen den eran, Biodibertsitateko ekintza koordinatzeko laneko azpibatzerde bat sustatuko da, bere bertsio politiko eta teknikoan, eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako Ingurumen Sailek eta lehen sektoreko Sailek parte hartuko dute. Lan-talde honen helburua izango da bertan ordezkariak duten erakundeetako biodibertsitatea kudeatzeko politikak eta tresnak garatzen dituzten arduradunen arteko topagunea izatea; horrela, arduradun horien arteko sinergiak sortuko dira, kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko eta erkidego osorako alertei eman beharreko arreta koordinatzeko. Azpibatzerde horrek ez du, inolaz ere, gaur egun dagoen administrazio-sarearen hazkunde bat eragingo.

<sup>43</sup> Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren kasuan, Sailletako ordezkariak zuzendariak dira, Ingurumen Batzordean, aldiz, sailburuordeak.

## b) Baliabide ekonomikoak

Biodibertsitatearen Estrategiaren epemuga 2030. urtea da, hau da, 14 urteko ibilbidea izango du, eta Estrategia hau 3 Ekintza-planen bidez egitea aurreikusten da: lehenengoa Estrategia onartzen denean hasiko da eta 2020ra artekoa izango da, eta beste biak 2021-2025 eta 2026-2030 aldietan gauzatuko dira. Ekintza-plan bakoitza amaitzen denean, Estrategiaren ezarpen-maila ebaluatuko da, baita Estrategiako jomugei egin dien ekarpena ere, eta, ebaluazio horretatik abiatuta, hurrengo Ekintza-plana diseinatuko da.

Euskadiko bilakaera ekonomikoak, Europako gainerako herrialdeetakoekin bat, suspertze ekonomikoaren zantzu ahulak ditu oraindik eta ziurgabetasun-maila handia du, nahiz eta nolabaiteko hazkunde etengabea erakusten ari den. Hala, 2016ko hazkunde % 2,5<sup>44</sup> ingurukoa izango da; 2017an,

ordea, txikiagoa izango dela aurreikusten da. Horri guztiari Estrategiak duen denbora-epe luzea eransten badiogu, gomendagarria da printzipio kontserbadoreak izatea aurrekontuei lotutako gastuak kalkulatzeko direnean.

Testuinguru honetan, erreferentziako aurrekontu-esparrua 2016an Ingurumen Sailburuordetzari lotuta dituen aurrekontuak dira, eta zehazki, biodibertsitatearekin zerikusia duten partidak, hain zuzen, «Ekosistemak kontserbatzea» 1. Helburu Estrategikoaren eta «Erantzukidetasun publiko/ pribatua eta herritarra» 4. Helburu Estrategikoaren ataletakoak. Aurrekontu-esparru horren arabera (erabiltzeko esleitu den aurrekontua<sup>45</sup> 3.800.000 euro baino pixka bat gehiago da), aurreikusitako jarduketak garatzeko 2017an beharko diren aurrekontu-baliabideak hauek izango lirateke:

Biodibertsitate-Estrategiaren Jomugak	Aurrekontu-beharrak	Ehunekoak
1. Ekosistemak babestea eta leheneratzea	1.076.000 €	% 26,91
2. Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa	1.837.000 €	% 45,93
3. Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea	761.000 €	% 19,03
4. Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea	325.000 €	% 8,13
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.999.000 €</b>	<b>% 100</b>

<sup>44</sup> [http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/informe\\_trimestral/es\\_def/adjuntos/previsiones.pdf](http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/informe_trimestral/es_def/adjuntos/previsiones.pdf)

<sup>45</sup> Erabiltzeko esleitu den aurrekontuan, kanpoan utzi ditugu pertsonalaren gastuak eta jarduketa zehatz batekin loturarik ez duten gastuak, hau da, egitura-gastutzat jotzen direnak.

Aurrekontu-zenbatespen honen arabera, aurrekontua % 3 igoko litzateke 2016ko aurrekontuaren aldean. Adierazi beharra dago, halere, erreferentziatut hartutako 2016ko oinarri-urtean, ez dela sartu Uraren Euskal Agentziak (URA) biodibertsitatearen alorreko jarduketak egitera bideratzen duen aurrekontua<sup>46</sup>.

Bestetik, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren aurrekontu-baliabideez gain, kontuan izan behar da Biodibertsitate Estrategia ezartzeko Eusko Jaurlaritzako bestelako agenteek ere inplikatu behar dutela, esaterako, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak edo Lurralde Plangintzaren Zuzendaritzak, baita beste erakunde batzuek ere, esaterako, Foru Aldundiek. Ildo horri jarraikiz, aurreikustekoa da agente hauek Estrategia hau garatzeko aurrekontu gehigarri bat bideratzea.

Aurrekontua kalkulatzeko ziurgabetasuna areagotu egiten da, Lehenengo Ekintza-planaren denbora-epean aurrera egin ahala. Hori dela eta, aurrekontua urtean batez beste % 2 gehituko dela ipini dugu, Estrategian jasotako jarduketek jarraipena eman ahal izateko; susperraldi ekonomikoa eta enplegua sendotu egingo direla aurreikusi dugu, beraz. Horrela, aurreikusten diren gastu-mailak hauek izango lirateke:

Hala, Ingurumen Sailburuordetzak Biodibertsitatearen Estrategiako Lehenengo Ekintza-plana garatzeko erabil dezakeen aurrekontua 16.500.000 euro ingurukoa da, Planak iraungo duen 4 urteetan banatuta. Aurrekontu-aurreikuspenak zeinahi direla ere, Estrategiako Lehenengo Ekintza-Planeko ekitaldi bakoitzeko jarduketa-maila Legebiltzarrak ezarritako aurrekontu-aginduen mende egongo da, baita Estrategia garatzeko behar diren tresnen tramitazio formalaren mende ere.

Biodibertsitate-Estrategiaren jomugak	2017	2018	2019	2020
<b>1. Ekosistemak babestea eta leheneratzea</b>	1.076.000 €	1.097.520 €	1.119.470 €	1.141.860 €
<b>2. Europako Natura 2000 Sarea sustatzea aukerarako tresna gisa</b>	1.837.000 €	1.873.740 €	1.911.215 €	1.949.439 €
<b>3. Naturaren ezaguera eta kultura sustatzea</b>	761.000 €	776.220 €	791.744 €	807.579 €
<b>4. Lurraldearen eta natura-ondarearen kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia izatea</b>	325.000 €	331.500 €	338.130 €	344.893 €
<b>TOTAL</b>	<b>3.999.000 €</b>	<b>4.078.980 €</b>	<b>4.160.560 €</b>	<b>4.243.771 €</b>

<sup>46</sup> URAk biodibertsitate bideratutako batezbesteko urteroko aurrekontua 1.400.000 eurotik gorakoa izango dela kalkulatu da; espezie inbanitzaileak kentzeko eta leheneratzeko jarduketak egiteko izango da aurrekontu hori.

## c) Jarraipena eta ebaluazioa

Ingurumenaren egoerak, Ingurumen-adierazleak edo Ekobarometro Sozialak eta Industrialak tresna baliotsuak dira eta, horien bidez, gure egoera eta ingurumen-bilakaera ezagutu dezakegu. Halere, Estrategiaren onspena eta bertako ekintzen ezarpena jarraitu eta ebaluatu egin behar dira. Horretarako, Estrategiaren ekintza- eta ebaluazio-mekanismoak antolatzen dira:

- **Ekintza-planak:** 5 urteko aldietan garatu beharreko jarduketak biltzen dituzte, eta aldi horietako lehenengoa 2020rako Ekintza Plan gisa Estrategiak berak jasotzen duena da. Horrela, 2025erako Ekintza-plan berri bat egingo da eta azkena 2030erako egingo da.
- **Bi urtez behingo jarraipen-txostenak:** Ekintza-plan bakoitzean aurreikusitako jarduketaren aurrerapen-maila jasotzen dute. Lehenengoa 2018an egingo da.

— **Ekintza-planaren ebaluazio-txostenak.** Txosten horiek Ekintza-plan bakoitzaren azken urteetan egingo dira, eta bi urtez behingo jarraipen-txostenarekin batera, hurrengo Ekintza-planaren oinarria izango dira. Txosten hori kanpoko eta independentea den erakunde batek egingo du, aintzat hartuz gardentasun, partaidetza eta lankidetzarako irizpideak eta aginte-koadroko adierazleen bilakaera ere barnean hartuko du.

2030erako Biodibertsitatearen Estrategiaren ebaluazioaren ondoriozko informazio guztia eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren webgunean –[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)–, kontsultatzeko eta parte hartzeko.

Ondoren, 2030erako Euskadiko Biodibertsitatearen Estrategiaren betetze-maila neurtzeko sistema objektiboa aurkezten da:

### 2030erako Euskadiko Biodibertsitate Estrategiaren Aginte Koadro Integrala

Emaitzen adierazleak	2020rako helburua	2030erako helburua
Kontserbazio-egoera txarra duten Batasunaren intereseko habitatak	≤ % 75 % 77 2012. urtean	≤ % 65
Nekazaritza eta ingurumeneko neurrietara atxikitako hektareak	60.000 ha. 55.600 Ha. 2012.urtean	95.000 ha.
Baso-kudeaketa jasangarrira atxikitako hektareak	100.000 ha. 77.992 2015. urtean	150.000 ha.
Baso-ingurumeneko neurrietara atxikitako hektareak	100 ha.	1.500 ha.
Natura 2000 Sareari buruz duten ezagutza euskal herritarrek	% 20 % 10 2011. urtean	% 30

Ekintza Planaren kudeaketa-adierazleak	Helburua
2020rako Ekintza-planeko jarduketaren gauzatze-maila	% 100 (Bitarteko helburua ≥ % 50)
Ekintza-planaren jarraipenari buruzko txostenak egitea	Bi urtean behin (2018an hasita)
Ebaluazio-txostenak egitea	2020an, 2025ean eta 2030 urtean

